

GUaixe.net



Olatzagutia-
Urbasa **lasterketa**
bihar jokatu da



Kirolak >> **11**

Igandeko **San Migel** ospakizunak
jendetza erakarriko du Aralarko
santutegira. Ekain, Uharte Arakilen
eta Olatzagutian **festa**



Sakanerria >> **5/8**



Maider Goñik, Mikel Mundiñanok, Joxi Bakaikoak eta Edurne Igoak herenegun azaldu zuten udalaren eta ekimenaren iritzia.

Erabakitzeko eskubidearen inguruko herri galdeketa eginen da Etxarrin

Epaitegiak zuhurtziaz indargabe utzi du Etxarri Aranazko Udalaren erabakia. Etxarri 2012+1 ekimenak Udalari eskatu dio gatazka juridiko antzuak saihestu ditzala. Galdeketa nola egin lastailaren 10ean eginen den batzar batean erabakiko da >>>7

Arratibelen tortura salaketak Estrasburgora

>>>7

Euskara
biziberritzeko
superheroiak
Mintzakide
programan
daude >>>5

PPk Olaztiko
Udalaren
hizkuntza
irizpideen
kontra egin du >>>9

Munstro
birziklatuek
hartu dute lortia >>>15



Txirrindula
eguna, Sakana
pedal kolpeka >>>13



Urriak 5 Urbasako igoera

Sarrerak saltzen egoteko

boluntarioak

behar ditugu 948 562 107 telefonora edo idatzi bierrik@guaixe.net helbidera

ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.



Jarraitu
gaitzazu

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzaileak • Alumninoa-P.V.C-Mistoak

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Jokin eta Janire

Bat eta bi urte jadanik!!! Zorionak fameli guztiyen partez segi beti bezein pexoxo eta pexoxa. Bi muxu haundi haundi.



Kemen

Bigarren eskuarekin hasi zara zenbatzen. 6 urte Kemen, ZORIONAK familia guztiaren partez!



Kemen

ZORIONAK Kemen! Zeinen gustura ibili ginen auto txokeetan, ezta? Muxu asko: Beñat.



Leiretxo

Maite zaitugun guztien partez: ZORIONAK!



Ainitze eta Tito

ZORIONAK AINHITZE! ZORIONAK TITO! Muxu haundi bat ama-txoren partetik! Muaks



Alvaro Etxarri

ZORIONAK!! Familiaren partez, bereziki, Uxue eta Lorearen partetik.



VENDETTA TXIKIAK

TXAPELDUNAK. Begitara begira, laralala!!! Segi horrela!!!!



Hodei

ZORIONAK!! Hamar-kada behar bezala ospatu ondoren... segi orain bezalaxe. Etxeko guztien partez.



Ihart Goikoetxea Garde

ZORIONAK gure etxeko politari! Bost urte egingo dituzu astelehenean... Ene! Ohartu gabe handitzen ari zara txikita! Muxurik goxoena zuretzako! Siets, Aita eta Ama.



Ihart Goikoetxea ZORIONAK

poliita!! Muxu handi bat. Amona Isabel, osaba Iñigo eta izeba Martaren partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

irailak-urriak

27-3

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Potroberoak, Kalandraka, Kagando blando eta Fernando huevos colgando. Irailaren 27an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean.

Kortxeak tailerra. Irailaren 29an, igandean, 19:30ean Etxarri Aranazko elizan.

Dantza

Uztartuz. Irailaren 28an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ibarrako Alurr dantza eskolako ikasleak.**

Mendi irteera

Etxarriko kanpina-Otxenta-Auntzetxe (gaua pasa)-Trikuharrien ibilbidea-Basopokale-kanpina. Irailaren 28an, larunbatean, 16:30ean Etxarri Aranazko kanpineko aparkalekutik abiatuta. Eta igande goizean. **Sakanako Ikastolen mendi taldea.**

Iparia. Irailaren 29an, domekan. Altsasuko Mendigoizaleak.

Txirrindula irteerak

Sakanako txirrindula eguna. Irailaren 29an, igandean, 9:00etan Irurtzundik Altsasura. 39 km.

Erakusketak

Munstroak izenik Gabe. Hondakinak biziberritu dituen erakusketa. Lastailaren 12ra, astelehenetik ostiralera, 18:30etik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Hitzaldiak

San Miguel Arcángel: nuestro protector en la batalla" (Testimonio de una intervención). Irailaren 29an, igandean, 18:00etan Uharte Arakilgo Zamartze



Kagando blando taldea Olatziko Maisuenean izanen da gaur.

espiritualtasun etxean. **Hizlaria: Maria Vallejo Najera idazlea.**

Mahaingurua

Sexualitateari buruzkoa. Lastailaren 1ean, asteartean, 19:30ean Altsasuko gaztetxean.

Bestelakoak

Haur txokoa martxan jartzeko bilera. Irailaren 30ean, astelehenean, 19:00etan Etxarri Aranazko udaletxean.

Onddo bilketa. Lastailaren 3an, ostegunean, 16:00etan Altsasuko gaztetxetik. Ostiraleko afarirako.

Pintxo pote. Lastailaren 3an,

ostegunean, 19:30etik aurrera Altsasuko gaztetxean.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 27an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Irailaren 29an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Irailaren 30ean, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

edo uhinbak aplikazioaren bitartez www.guaixe.net

Ostiralero 9:30etik 10:30era SAIOA

Asteburuko agenda

Asteko errepasoa: albisteak, kirolak, Etxarriko herri galdeketa, Amai taldea, Urko Mauduit, Sasoia, euskara irakasleak...

Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

Piztu irratia!

Negurako prest?

Autoari neguko pneumatikoak jartzeko ohitura gero eta gehiago zabaltzen ari da Euskal Herrian. Elurretako gurpilek itsaspen egokia ematen dute euria, elurra edo izotza dagoenean, sasoiko oinetako egokiak dira.

Merezi du elurretako pneumatikoak jartzea?

Sakanakotailerretangertatzen ari denari erreparatuta, Euskal Herrian gero eta gidari gehiagok jartzen dituzte neguko gurpilak. Garai batean eskiatzera joateko ohitura zutenek baino ez zituzten jartzen elurretakoak, baina hori bukatu da. Orain edozeinek jartzen ditu, eskiatzera joan edo ez.

Azaro aldera autoa lantegira eraman, eta oinetakoak aldatzen diren bezala, autoari lau pneumatikoak, edo bi bakarrik (motrizak) aldatzen dizkiete, eta sasoiakoak jartzen. Besteak apiril aldeara arte gordetzen dituzte etxean edo konfidantzazko garajejan. Elurra eta izotza gidari guztientzat izango dira traba beti, baina elurretako pneumatikoak jarrita dauzkateneandako ez hainbeste. Erabateko itsaspenera ematen dute.

Kateak bezain fidagarriak dira, edo gehiago, diote mekanikoek.

Negua gogorra badoa, bideberrir sarean arazo pila izaten da. Batzuetan eguraldi txarrak erabakia hartzera bultzatzen du, baina kontutan hartu beharra dago Sakinatik kanpora lanera joan behar duten sakandarren kopurua handituz doala, eta hauexek segurtasunari ematen diotela garrantzia, beste gauza guzien gainetik. Gure ibarreko euri egunak asko dira, hortarako ere neguko gurpilak oso gomendagarriak dira. Horrela, horietako gidari askok erabakia aspaldian hartuzuten. Hala ere, elurretako gurpilak ohikoak baino zerbait garestiagoak dira. Dena den, segurtasun aldetik ez dago arazorik.

Edonola ere, beti aurki daitezke elurretako gurpilen aldeko arrazoia: auto batek 16

metro behar ditu geratzeko 50 kilometro orduko abiaduran errepide bustian; 32 metro elurrarekin; eta 64 izotzarekin. Ez hori bakarrik, neguko pneumatikoekin 34 metrora geratuko da autoa 80 kilometro orduko abiaduran badoa; 40 metrora ohiko pneumatikoekin. Errepide elurtuan dago benetako aldea: 32 metrora geratuko da autoa neguko gurpilekin, 50 kilometro orduko abiaduran; ohikoekin, berriz, 63 metrora. Fabrikatzaileek diotenez, 7 gradutik behera seguruagoak dira neguko pneumatikoak.

Garestiagoak badira ere, zalanztzik gabe, segurtasunean alde handia dago. Tailerrera joanda, xehetasun guztiak emango dizkigute.



BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Eskaintza bereziak GURPILETAN

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea

BAIZA motor

948 461 734
Burundabide 5
ETXARRI ARANATZ
948 500 392
Dos Hermanas 34
IRURTZUN

AUTO ELEKTRIKOAN IBILBIDEAK

BIBEI

www.bibei.eu • 659 641 735 • info@bibei.eu • Arbizu

IAT AURREKOA • PNEUMATIKOAK • MEKANIKA OROKORRA • DIAGNOSIA • MANTENTZE LANAK

JUGA TAILERRAK
4x4 espezialistak

NEGUKO PNEUMATIKOAK
prezio ezin hobean

- Lehen mailako markak
- Krisi garairako markak

Eskatu aurrekontua

Segurtasuna zure esku!

948 462 171 / 659 484 275 • jugaracing@hotmail.com • Utzubar industrialdea, E kalea 8 • Arbizu



Benjamin Zufiaurre Goikoetxea

A relaxing café con leche

astekoa

hara zer dien

Bateragarritasunaren bidetik:

Gero eta okerrago goaz. Gorroto dut espainol pasaportea eta identitate karneta izatea. Jende nazkagarri hauekin ezin da aurre-rajoan. Dena salgai eta dena eros daiteke eta zorretan leporaino. Azkena: olinpiada hautaketa Buenos Airesen. Madrildik zer nola-kotalde lotsagarria bidalizen. Eta zer nolako gastua hainbat lotsagabekoekin. Hori da barregarri

gelditzea: “romantic dinner in Madrid de los Austrias”. Zer nola-ko buruak hainbat pentsatzeko. Gaur egun mugidako Madril horretan, Rouco eta Cobos antzeko asko daude erlijio eta justizia-ko munduak kontrolatzeko. Behin eta berriro ideologia frankista nazkagarrienarekin gabiltza. Ez dago inolako txukuntasun politikorik, gezur giroa baka-

rrik. FMik eskatzen du soldatak 100etik 10era jaisteko. Baina soldata jasotzen duen langilerik geratuko da? Kataluniarrek independentzia nahi, eta Austriarrak: “in Madrid de...” esan bezala ez daude onartzekotan. Dena aldaezina dela dirudi, dezentziarik ez, dirurik ez, lapurretak eta azpikeriak denak. Hemendik alde egin behar

da. Nik zerbitzu militarretik alde egin nuen, gero Nafarroatik ere nahiz eta hemendik ibili. Kataluniak ez badu independentzia jasotzen, erabakitzeko eskubidea ezeztatzen bada, Frantziarra bihurtzea gero eta garbiago dut. Holandako erregeak esaten duen bezala, ez badago ongizaterako aukera Europan, kanpora, zergatik ez?

Altsasuko Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren 5. ildoaren 2. programak “Emakumeak erabateko herritartasunez jarduteko baldintzak” lortzea du helburu eta honekin bat dator “Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea xede duen Altsasuko III. Ituna”.

Altsasuko Udalak, Jesusen Bihotza, Zelandi eta Txirinbulo Haur Eskolako Guraso Elkarte-ek, Iñigo Aritza Ikastolako Batzordeak, Atenea eta Sakana-ko Ezgaituen Elkarteek, Altsasu, Olazti eta Ziordiko GZM-ak eta UGTk Ituna sinatu zuten iazko apirilean, NFBiren Bizitza, lana eta familiako eginkizunak Bateratzeko Toki Itunen Programaren ekimen hau.

Itunaren ustez, BATERAGARRITASUNAK:

- Herritarrei lana eta bizitza pertsonala garatzeko aukera ematen die, jakinda honek ez diela emakumeei soilik eragiten, ondorio garrantzitsuak baititu jendartean, familian eta enpresetan.

- Pentsamoldeak aldarazi behar dituela, jendartea bizirik irauteko pertsonak artatzea eta zaintzea ezinbestekoa dela uler dezagun. Zaintza lana emakumeek eta gizonen berdintasunean egin beharreko eginkizuna da, eta berdin gertatu behar da etxekolanen edota denboraren banaketarekin, guztioi dagozkigun ardurak direlako.

- Hau gauzatzeke ezinbestekoa da lan alorrean ere hainbat gauza aldatzea, bertan antzematen baita gehien lana banatzeko orduan dagoen desoreka. Emakumeek bere karrera profesionalen sartu, gelditu eta aurrera egitea ahalbidetzen duten neurriak, langileei beren bizitza pertsonalaren eskaerei erantzun egokia ematen dietenak eta enpresentzako, emakumeak kontratatzeagatik eta bateragarritasunaren aldeko planak martxan jartzeagatik onurak ekartzen dizkieten neurriak hartu behar dira egungo egoera aldatzeko.

- Baliabideak, kanpoko laguntzak, denbora eta kontzientzia-zioa ezinbestekoak dituela, familien beharrak alde batera ez uzteko eta enpresetan aurrera egiteko eta enplegurako prestakuntza jasotzeko.

Emakumeen bilgunea

barrutik kanpora

Mehatxatuta ez ordaintzeagatik

Zorrak erreklamatzeko zordunen fitxategiak erabiltzen dituzten enpresak gero eta gehiago dira. Zorren datuak kudeatzea errentagarria da fitxategietako arduradunendako, zorretan dagoena ataka estuan paratzeko balio-garria delakoan dirua ordaintzen baitute enpresa haundiek. Hala ere, gure datuak modu horretan erabiltzen dituztenek, fitxategietako arduradunek nola zorra erreklamatzeko duten enpresak ez dituzte beti arauak betetzen, egun indarrean dagoen Datu Pertsonalen Babeserako Legearen arabera behintzat.

Datu pertsonalen erabilera oke-

rrak jendea kaltetzen du, batez ere ez dagoen zorra batengatik gure datuak fitxategi batean sartzen badituzte. Jendearen irudi zintzoa nahiz izen ona zikintzen dute eta batzuetan kalte ekonomikoa ere eragiten dute, adibidez, fitxategiko argibide okerrak eraginda mailegu bat ukatu edo baldintza makurragoetan ematea.

Legearen hutsuneak eta interpretazio maltzurak eta guzti Españako Datuen Babeserako Agentziak zigor espedienteak zabaltzen ditu urtero, eta urtetik urtera kopuru hori haundiagoa da. Epaitegietan ere urtero karrikaritzen dira kaltetuen aldeko

epaiak datuen erabilera okerrarengatik, eta Auzitegi Gorenak ebatsi zuen fitxero batean datu faltsuak sartzea ohorearen kontrako ekintza dela.

Kontsumitzaileen Elkarteek salatu dute behin baino gehiago etan Legea ez dela nahikoa eta gure eskubideen gainetik enpresen interesak babesten dituela. Hala ere, gure eskubideak ezagutzea komeni da, badaezpada ere. Fitxategi batean benetako zorren informazioa bertzerik ez da sartzen ahal, hau da, zalantzagabekoa izanik ordaindu gabe dagoena eta erreklamatzeko ahal dena. Gainera, datuak fitxategi batean

sartu baino lehen enpresak idatziz erreklamatu behar du zorra eta ordaindu ezean bide hori hartuko duela jakinarazi. Fitxategiko arduradunak ere zorren datuak sartu direla erran behar digu idatziz sartu eta ondorengo 30 egunetan, ezabatzeko (egia ez bada) edo zuzentzeko (okerra bada) eskubideak gauzatzeko. Gehienez 6 urtez egoten ahal dira gure datuak bertan. Azkenik, zorra kitatuz gero edo okerra frogatuz gero datu horiek berehala ezabatu behar dituzte.

Iratxe kontsumitzaileen elkarte

gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

Nafarroako Gobernuaren Portland-en aldeko jokabide lotsagarria

Gorka Muñoz
3Mugak Batera Plataforma

Hondakinak errausteko Portland-en proiektua baimendu eta interes orokorreko izendatu ondoren, Nafarroako Gobernuak orain magnesita ekoizpena baimendu du, oso kutsagarria den jarduera eta estatuko enpresa kutsagarrienen mapan puntu beltz bihurtuko gaituena.

Portland-ek labe bat hondakinak errausteko eta clinkerra egiteko erabiliko du, bestean magnesita ekoiztiko du. Burugabeke-ria galanta, egungo kutsadurari jarduera berriak sortuko duena gehitu beharko zaiolako. Gainera ez du lanpostu berri bakar bat ere sortuko.

Guztia NGk ohikoa duen ilun-keriaz burutu da, abuztuan, inolako parte-hartze prozesurik gabe, jendaurreko aurkezpenik egin gabe.

NGk Portland-i emandako salbuespen berriek, Zubirin Magna-

ri baimendutako isurpen mugak oso goitik gainditzen dituzte eta neurriak ezartzeko egin beharreko gastuak (Portland-ek dio 3 milioi euro liratekeela) ingurumeneari izango luketen onurarekin alderatuta gehiegizkoak direla dio.

Ondorioz, magnesita ekoizteko Portland-i baimendutako sufre oxido (SOx) (pertsona eta animalien hilkortasuna handitzen du, lurren emankortasuna murrizten du, basoak erretzen ditu eta ura kutsatzen du) isurpenek %33 eta %400 artean gainditzen dituzte

emisio mailak eta Portland-en ekoizpen gaitasuna Zubiriko Magnarena baino %35 inguru handiagoa izanen da.

Nafarroako industria kutsatzaileen artean dagoen Zubiriko Magna txiki geratuko da Olaztikoaren ondoan. Magnesita ekoiztean sortutako kutsaduraren ondorioz, eragin kaltegarria jasango duen eremua handiagoa izanen da eta zementu ekoizpenak eta hondakin errausketak izugarri areagotuko dute kutsadura hori.

Osorik www.guaixe.net-en

Guaixe

ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa • bierrik@guaixe.net
GUAIXE: Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • [948 562 107](mailto:948562107@guaixe.net) • guaixe@guaixe.net
PUBLIZITATEA: Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net • Maria Saez de Albeniz Bregaña • publizitatea@guaixe.net • 948 564 275

Erredakzio burua: Alfredo Alvaro Igoa
Erredakzioa: Maider Betelu Ganboa
Maketazioa: Ainhoa Etxeberria Pikabea
Laguntzaileak: Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena eta Gixane Andueza Goikoetxea
Zuzentzailea: Felix Alzelai

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200 ale

LAGUNTZAILEAK:



ALTSASUKO GAZTETXEAK 23 URTE: Heldu den larunbatean izanen da gaztetxearen okupazioaren urteurrena. Hori dela eta Al-

tsasuko Gazte Asanbladak asteartetik aurrera hainbat jarduera antolatu ditu (ikus agenda).

sakanerria >>

SAKANA



Euskaraz bizitzeko deia zabaldu zuten irakasle aritutakoek eta direnek.

Euskaraz aurrera

Euskaltegian izena emateko gonbitea luzatu dute irakasle aritutakoek eta ari direnek

70eko hamarkadan gau eskoletan eta ondoren AEKn helduen euskalduntze alfabetatzeari aritu ziren eta ari diren irakasleak biltzeko deia egina zegoen larunbatean. 107 pertsona guztira. Eta haietatik 50 inguruk eman zuten baiezkua eta Etxarri Aranatzeko bazkaltzera bildu ziren. Batek baino gehiagok azaldu zuten deialdiak sortu zion "sorpresa pozgarria".

Batzuek ibilbide luzea egin dute helduen euskalduntze alfabetat-

zear eta udal euskaltegien, IKAn edo AEKn segitzen dute lanean. Haietako asko, bestalde, euskarari lotutako jardueretan segitzen dute. Hainbatek topaketa garai bateko kontuak errepasatzeko baliatu zituzten, zer egiten zuten, nola egoten ziren eta abar. Etorkizunerako asmoak ere izan ziren hizketaldietan.

Adierazpenak

Bazkarian egungo Sakanako AEK-ko arduradun Patxi Floresek topaketaren antolatzaileei eskerrak eman zizkien, "poztekoa da hain-

beste urteren ondoren biltzea". Guztieieskerrak eman zizkien bere momentuan zeukaten hizkuntza, euskara, beste batzuei pasatzeagatik edo euskara eskuratzeagatik.

Ibarreko AEKko aurreneko libe-
ratuak Sagrario Aleman eta Koldo Aldalur izan ziren. Azkenak ezin izan zuen etorri, baina IKako kide eta euskaltzaina den Alemanek hitza hartu zuen eta topaketaren antolatzaileei eskerrak eman zien lehenik. Alemanek nabarmendu zuenez, "gogoz arituginen. Hurrengoak ere hala aritu ziren, eta gaur egungoek ere hala segitzen dute".

Euskara biziberritzeko superheroi izan nahi?

Mintzakide programan izena emateko deia luzatu dute

Hizkuntza praktikatzeko, mintza-
praktika egiteko, egitasmoa da Mintzakide. Euskaraz aritzeko ohiturarik ez duten lagunak ohitura dutenekin elkartzen dira. Asteazkordetik, paseatuz, kafea hartuz, mendian, kalean, goizean,



Mintzakide sakandarrak basoan.

Informazioa

Informazioa jaso edo parte hartu nahi baduzu, Sakanako AEK euskaltegiari (948 468 258, sakanamintza@aeak.org edo facebooken Sakanako Mintzakideak) edo Mankomunitateko Euskara Zerbitzura (948 464 840 edo euskara@sakana-mank.com) jo daiteke. Sakandarren bloga: <http://sakanamintza.blogspot.com>

arratsaldean, gauean... Horrela erabileran eragiteko eta hizketarako konfiantza eta euskararendako gune berriak eskaintzeko modua da. Ahalegin horri esker biziberritzen da euskara, eta superheroiak bezala, sarri ikusezinak izaten dira pertsona horiek. Aurreko ikasturtean 5.500 mintzakide elkartu dira Euskal Herri osoan.

TopaEgunera deitu dute, euskaltzaleen festara

Larunbatean ospatuko da, Soraluzen, Euskaltzaleen Topaguneak antolatuta

Euskal Herri guztiko euskaltzaleen bilgune izan nahi du biharko ospakizunak, horregatik guztiei luzatu dietegonbitea Arrate Gisasola Soraluzeko Pil-Pilean euskara elkarteko eragileak eta Jasone Mendizabal Euskaltzaleen Topaguneko zuzendariak. Egun osoko festarekin euskaltzaleen ekarpenaren eskertzea eta aldarrikapena egin nahi da, baina jai giroan.

Soraluzeko herritarrek, eta Deba ibarrekoek, euskaltzaleen sunarekin eta auzolanarekin izan duten lotura nabarmen gelditu da egunaren antolakuntzan, bi ardatz horiek kontuan hartuz, herriko hainbat eragileren arte-

Egitaraua

11:00etan Harrera.
12:00etan Liburu aurkezpena (hitzaldia): Jon Sarasua.
Goizean zehar: umeen hira; berba probak, Andrabanda feminista, Kantu Jira eta puzgarriak.
14:30etan Herri bazkaria.
Bazkalostean: Irrien Lagunak, Kultur Gindak, Hezitzaileen arteko jolasak eta kalejira.
18:00etan Ekitaldi nagusia.
19:00etan Xero Xietxe taldearekin erromeria.
22:30etan Kokein eta Gose.

an antolatu baitute TopaEguna. Euskaltzaleen ekimena eta auzolana azpimarratzeko beste modu bat hain zuzen ere. Euskaltzaleen Topaguneko kide dira Aizpea eta Kima euskara taldeak eta Berrrik fundazioa.

Bere egunean jendetza erakarriko du Aralarko aingeruak

Igandean ospatuko da San Migel Goiaingeruaren festa eta ospakizunak jendetza erakarriko du santutegira. Aralar gainera igotzen direnak lau elizkizun izanen dituzte goizean: 9:00etan, 10:00etan, 11:00etan eta 12:30ean. Azken hori meza nagusia izanen da eta Iruñeko gotzain laguntzaileak, Juan Antonio Aznarezek emanen du. Arratsaldean, 18:00etan, beste meza bat izanen da. Elizkizun bakoitzaren ondoren Aralarko aingeruaren irudia gurtzeko aukera izanen da. Hala nahi duten fede-

dunek ere aitortzeko aukera izanen dute, aitortze egun guztian egonen dira.

Larunbatetik geroztik San Migelen bederatziaurrean ospatzen ari da eta igandera bitarte, egunero 18:00etan, meza izanen da santutegian. Bestalde, Zamartzeko espiritualtasun etxean, igandean, 17:00etan bezperak izanen dira eta 18:00etan Maria Vallejo Najera idazleak hitzaldia eskainiko du: San Miguel Arcángel: nuestro protector en la batalla" (Testimonio de una intervención).

Gomendioa

Urtean zehar Aralarko santutegiak jende gehien biltzen duen eguna da San Migel eguna, igandea. Horregatik, eguerdi parteko mezak jendez gainezka egoten dira, baita apar-kalekuak eta bideak ere. Horregatik, larunbat arratsaldeko, igandeko goizeko aurreneko bi mezetara edo arratsaldeko joateko gomendioa luzatu dute.

MAITE
arrandegia
Arrain freskoak, egunero
Bertako amuko txipiroiak

948 467 385 • 607 973458
La Paz 3 • ALTSASU

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.
Ermiteta Kalea 4. ZBK. (Atzekalea)
LAKUNTZA. TFN: 948 576 331

Sorgiñak
taberna

LAKUNTZA
948 576 357

etxeko aseguruetan
%35 era arteko
deskontuak
eta, gainera, etxetresna
elektrikoak konpontzeko zerbitzua DOAN

MAPFRE ALTSASU

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 behekoa • ALTSASU • 948 563 354

SAKANA

Lastailarekin batera nekazal ibilgailuen eta ziklomotorren IAT

Urtero moduan, udazkenarekin batera, Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) egiteko estazio mugikorra Sakanara etorriko da. Heldu den asteartetik aurrera hasiko dira ibarreko ibilgailuak IAT pasatzen.

**IAT egutegia**

Herria	Eguna
Irurtzun	Lastailak 1, asteartea
Ihabar	Lastailak 2, asteazkena
Uhartxe Arakil	Lastailak 3, 4 eta 7, ostegun, ostirala eta astelehena.
Arbizu	Lastailak 8, asteartea
Unanu	Lastailak 9, asteazkena
Etxarri Aranatz	Lastailak 10, osteguna
Lizarraga	Lastailak 11, ostirala
Iturmend	Lastailak 14 eta 15, astelehen eta astearte
Altsasu	Lastailak 16, asteazkena
Olatzagutia	Lastailak 17, osteguna
Ziordia	Lastailak 18, ostirala
Bigarren aldia Sakanan	Lastailak 28, astelehena

Altsasu

Feriako ohiko zaldi lehiaketa indartuko da

Lastailaren 20an Altsasuk bere ganadu feria hartuko du. Aurten ez da Auritz arrazako zaldien lehiaketarik izanen. Horren ordez, Altsasuko Udalak bertako zaldien feria indartzea erabaki du. Abeltzainei parte hartzea erakarriagoa egiteko hainbat neurri hartu ditu

Altsasuko Udalak. Alde batetik, sarietako diru kopurua handitu egin du; eta, bestetik, sariak 3 maila izatetik 5 izatera pasa dira.

Ferian parte hartu nahi duten abeltzainek Altsasuko udaletxean izena eman behar dute. Lastailaren 9ra arteko epea dute. Feria

behar bezala antolatua izateko gehienez ere 70 buru onartuko dira. Abeltzain bakoitzak gehienez 7 buru aurkeztu ahal izanen ditu, 2 buru maila bakoitzeko. Dieta moduan abeltzain sakandarrek buru bakoitzeko 60 euro jasoko dituzte.



Zaldi ugari ikusiko dira.

»

Pentsiodunen eta seme-alaben etorkizunaren alde borrokatzera deitu zuten.

Pentsio duinen eskaera

Nafarroako Jubilatuen Elkartek, Sasoiak deituta gaur Altsasuko azokan 50 bat pertsonen kontzentrazioa egin dute. Murrizketarik gabeko pentsio duinak aldarrikatu dituzte. Sasoiako kideek salatu dute pentsioen erreformak erabat pobretuko dituela. Lege aldaketak ekarriko dizkien ondorioak zerrendatu dituz-

te: erosketa ahalmena izugarri jaitsiko da, bizimodua garestitzea, botikak eta anbulantzia ordaindu beharra... Gainera, gogorarazi dute langabeziarengatik hainbat familien euskarri bakarra adinduen pentsioak direla. Pentsioen erreformak haien bizi maila hareago hondatuko dutela salatu dute.

» Etxarri Aranatz

Konzezio ermitan egindako lanekin harrituta

Itxuraldatuta opatu zuten Konzezio ermita larunbatean hara hurbildu zirenetxarriarrek. Zaharberritze txukuna askoren ahotan izan zen eta egindako lanaren fruitua aitortu zuten. Bildutako etxarriarrek ermita txiki utzi zuten elizkizunean. Ondoren, guztiak auzatean bildu ziren.

Larunbatean ermitako atean banatutako esku-orrietan azaltzen zenez, zaharberritze lanek 229.252,52 euroko inbertsioa eskatu dute. Zati-

rik handiena, 198.000 euro lehenik egin ziren lanek (2009) eraman zuten, eraikinaren egiturarekin zerikusia zutenak hain zuzen: teilatua, bobeda eta estalpea konponketak, besteak beste.

Azkenik, aparkatzeko arazorik ez zen izan aldameneko larre bat eginkizun horretarako erabilizelako. Izan zen gizonik inguruan zituen emakume eta haurren artean txokolatea banatu zuena. Antza, garai batean halako ohitura zegoen.



Ermita txiki gelditu zen bildu zen jende guztia erandako.

» Arakil

Bederatzi ikastaroko eskaintza egin du udalak

Lastailaren 4ra arte izena emateko epea zabalik dago

Lastailan hasi eta maiatza bitartean ariketa fisikoa egin, eskulanetan trebatu edota ezagutzak zabaltzeko eskaintza egin berri du Arakilgo Udalak. Hala, pilates, soinketa lasaia, yoga, eskulanak, marrazketa eta pintura, zurezko taila, zeramika eta lokatzezkotako eskultura, Nafarroako historia eta kosmetika naturala ikastaroak prestatu ditu.

Aurreneko lauetan kontaktua Nieves Santesteban da (646 605 732). Bestela, informazioa udaletxean emanen dute (948 500 101, 634 584 226 edo www.arakil.net). Udaletik zehaztu dutenez, ordutegiak malguak izandaitzke, beti ere, begiraleak eta taldekideek adostuta.

GEHIAGO

Arakilen ere bestelako ikastaroak izanen dira. Lastailan hasiko da zumezko saskigintza ikasteko tailerra. Hasierako data zehazteko badago ere, euskal dantzen ikastaroa izanen da. Baita antzerki tailerra ere, otsaila eta maiatza artean izanen dena. Azkenik, martxoan hasiko da nekazaritza ekologikoko hastapen tailerra.

» Irurtzun

Inasa ixteko baimena jaso du Baikap-ek

Bavaria Industrial Kapital AG (Baikap) enpresak azaroaren 16an aurkeztu zuen Inasa Foil SAKO instalazioak ixteko proiektua eta herenegun jaso zuen Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusi Andres Eciolaza Carballoren ebazpena, zeinak aluminioa eraldatzeko instalazioaren ingurumen baimen integratuaren eta irekitzeko baimenaren iraupena deklaratu eta instalazioa ixteko baldintzak ezartzen dituen. Santiago Gonzalez Berganzones zuzendariak itxiera proiektua gauzatu eta gobernuak jarritako baldintzak bete beharko ditu. 2014ko lastailaren 31 baino lehen egin beharko du instalazioa behin betiko ixteko eskaera.

» Irurtzun / Irañeta

Bi marista beatifikatuko dituzte

Lastailaren 13an, Tarragonan, 522 gizon eta emakume beatifikatuko dituzte. Guztiak ere Espainiakogerra zibilean hil zituzten. Beatifikatuko dituztenen artean Saturnino Pascual Jaunsaras Zabaleta irurtzundarra eta Lorenzo Lizasoain Lizaso irintarra daude. Arrazoi beragatik 2007ko lastailaren 28an, Erroman, beste sakandar bat beatifikatu zuten, Bernardino Irurzun Otermin domingotar fraide egiazretarra.



948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Aranatz

KE LANAK
TXIMINI GARBIKETA

652 920 848 · www.kelanak.com

» Etxarri Aranatz

Erabakitzeko eskubidearen inguruko herri galdeketa egingen da

Batzar batean erabakiko da nola. Etxarri 2012+1 ekimenak udalari “gatazka juridiko antzuak saihesteko” eskatu dio

Iruñeko administrazioarekiko auzien 2. epaitegiak zuhurtziaz indargabe utzi du Etxarri Aranatzko Udalaren autodeterminazioari buruz hartutako erabakia. Behin betiko epaia eman arte hartu du neurri hori epaitegiak, eta kostak ere udalari ordainarazi dizkio. Nafarroako Gobernuak jo zuen epaitegira, udalari bilkuran hartutako erabakia balio gabetzeko eskatu ondoren.

Epaitegiaren erabaki horren aurrean herenegun prentsaurrekoa eman zuten herri galdeketa sustatu zuten Etxarri 2012+1 ekimeneko Mikel Mundiñanok, Etxa-

rri Aranatzko alkate Joxi Bakaikoa, Bilduko zinegotzi Edurne Igoak eta NaBaiko zinegotzi Maider Goñik. Mundiñanok jakinarazi zuen ekimenak udalari eskatu diola baztertzeko Nafarroako Gobernuak hartu duen bidea. “Gatazka juridiko antzuak saihestu ditzala, horretarako eman behar diren pausoak emanaz”. Bestetik, herri ekimenarekin gai horretan elkarlanean jarraitzeko prestutasuna eskatu dio udalari.

Etxarri 2012+1 ekimeneko kideak adierazi zuenez, erabakitzeko eskubidearen inguruan lanean jarraituko dute. Mundiñanok aurreratu zuenez, “herri honek galdeketa hori egingen du”. Ekimeneko bozeramaileak ziurtatu du:

Galdera

Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?

“erabakitze eskubidearen inguruko eztabaida, iritziguztien arteko errespetuan oinarriturik, saihestezina da”.

Udalak eta ekimenak orain arte egindako ibilbidea baloratzeko aldizkaria banatuko dute Etxarrin. Horrekin batera, lastailaren 10era, osteguna, 20:00etan herri batzarra deitu du Etxarri 2012+1 ekimenak kultur etxean. Orain artekoa baloratu eta iritzia jasoko dira.



Goñi, Mundiñano, Bakaikoa eta Igoa prentsa aurreko agerraldian.

Iritziak

NaBaiko Maider Goñik udaleko bi alderdi nagusien izenean aldarrikatu zuen “erabakitzeko eskubidea herrien oinarritzko giza-eskubidea dela, eta gaur egun autodeterminazioarako eskubidea Nazioen Gutuna moduko nazioarteko agiri garrantzitsuetan jasotzen dela”. Goñik nabarmendu zuenez, “herrialde batek bere etorkizunari buruzko nazio mailako eztabaida baketsua egitea ezberdintasunei aurre egiteko modu arrazional eta demokratikoa da”. Funtsezkoztat jo zuen eskubide hori.

Euskaldunak nazioa garela azpimarratu ondoren, herrien determinazio librerako eskubidea aldarrikatu zuen Goñik, “gehiengo sozial politiko eta instituzionalak hori eskatzen du”.

Joxi Bakaikoa alkateak nabarmendu zuen Nafarroako Gobernuak duen helburu bakarra herritarrei ahotza kentzea dela. “Beldur diotegure herritarrek zer pentsatzen duten galdetzeari. Beldur diote demokraziari eta adierazpen askatasunari. Beldur diote atzera bueltarik ez duen gure Herriaren autodeterminazio prozesuari”. Bakaikoa ziurtatu zuenez, “Etxarriko

herriak abiatutako erronka honek erakutsi du gaur egungo erakundeetan eta egitura politikoetan ez dugula tokirik”.

Azkenik, alkateak deialuzatu zuen: “gizarte zibilari, herri-eragileei eta alderdi guztiei, erabakitzeko eskubidearen aldeko urratsak egiten jarraitu dezatela, oraingo marko juridikora eta instituzionalera mugatu gabe”.

Ekimenetik Mundiñanok azaldu zuen foru legeek herri galdeketa bat egiteko beharrezko bidea ibili ondoren, “Nafarroako Gobernuak beste eskaerekin egin bezala, gurea Ministroen Kontseiluaren

esku utzi beharrean auzitegiaren esku utzi zuen”. Mundiñanok esan zuenez, “Nafarroako Gobernuak trikimailu juridikoak erabili ditu bere eginkizuna bere beharrean”.

Ekimeneko kideak Nafarroako Gobernuari egotzi zion herri galdeketa sortu dion ezin egonaren aurrean gatazkaren bidea aukeratzeari. Galdeketa “iritzi ezberdinen topaleku natural moduan” ikusten dutelagaineratu du. Mundiñanok gaineratu duenez, “herritarrok borondate sendoa dugu etorkizunean zer izan nahi dugun erabakitzeko, dagoeneko prozesu geldiezin baten aurrean gaude”. Elkarlanean aritzeko

borondatea azaldu du ere.

PPren Etxarriko zinegotzi Juan Antonio Extremerak eskatuko du epaitegian sortutako gastuak Bilduk eta NaBaik ordain ditzatela. Bilkura hartan gertatua gaztigatu zuela gogora ekarri du Extremerak. Popularrak adierazi duenez, “independentziari buruzko galdeketa bat Espainiako Konstituzioaren kontrakoa da eta, beraz, legez kanpoko da”. Extremerak ziurtatu zuen Euskal Herria “fikziozko kontzeptu politiko” dela eta “Europak ez duela baimenduko inongo erregio sartzeari bere kideen erabateko babesik gabe”.

» Arratibelen tortura salaketa Estrasburgora

Patxi Arratibel Gartzia dijak sufritutako tortura kasuarengatik helegitea aurkeztu du Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokiak Estrasburgoko Giza Eskubideen Auzitegian. Arratibelek Torturaren Aurkako Taldearen bidez Espainiako auzitegiaren torturagatik salaketa jarri zuen, baina artxiba-

tu egin zuten “ikerketa nahikoa aurrera eramangabe, gertatutakoren gaineko erantzuleak nortzuk ziren argitu gabe”. Horregatik, Europako epaitegira jo du.

2011ko ilbeltzaren 18an Arratibel eta beste 5 nafar atxilotu zituen Guardia Zibilak, Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Gran-

de-Marlaska epaileak aginduta, “ETako kide izatea edo harekin kolaboratzea” egotzita. Guztiek salatu zituzten torturak. Inkomunikatuta egon zen 5 egunetan Arratibeli hainbat aldiz buruan poltsa jarri zioten eta kolpe ugari eman zizkioten. Horretaz gain, Arratibeli senide eta hurbileko lagunekin

mehatxu ugari egin zizkiotela eta bortxatzeko eta elektrodoak jartzeko imintzioak ere egin zizkioten.

Etxarriarra kuartelean zegoela polizi deklarazio sinatzera behartu zuten. Bere sinaduraren ondoren Aztnugal idatzi zuen. Hau da, laguntza atzekoz aldera idatzita. Konfiantzazko abokaturik gabe,

Arratibelek epaileari jakinarazi zion “babesik gabeko egoera izugarri horren aurrean, tortura saio gogorren erdian, laguntza behar zuela”. Atxilotu ondoren 18 hilabete eman zituen behin-behineko espetxealdian etxarriarrak eta Bermea ordainduta eta hainbat kontrol neurriekin utzi zuten aske.

PPSOE,

ETB

digitala

Nafarroan

orain!

Berria erosi taldea

FELIX OTEGI

TAXIA

9 lagunendako

tokia

660 342 071

IRURTZUN

GANUZA

SUKALDEAK

SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak

Horma armairuak

Elektragailuak

GANUZA

GARANTIAREKIN

Tel.: 948 460 203

faxa: 948 460 673

Etxarriko industrialdea

ETXARRI-ARANATZ

PORTUKO okindegia

Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822

Etxarri Aranatz: 948 460 988

Urdiain: 948 563 763

MOTZEAN



Komunitatearen haur-jolastokiaren sasoi berria

Interesa duten familiek udaletxean eman behar dute izena. Familia berriek 10 euro ordaindu behar dituzte, aurretik aritutakoek 5

Hirugarren urtez Etxarriko Haur-txokoak ateak zabalduko ditu. Aurreko ikasturtean 65 familia baino gehiagok parte hartu zuten Haur-txokoan. Musika eskolako eraikinean gela bat egokitu zen komunitateko 12 urtetik beherako haurrak han egon zitezen, beti ere pertsona heldu baten zaintzapean. Izan ere, Haur-txokoaren berezitasunetako bat hori da, udalak egoitza utzi arren familietako gurasoak arduratzen direla haurren zaintzaz. Horretarako zainketan eta Haur-txokoa zabaltzearen eta ixtearen arduran txandakatu egi-

ten dira. Gela 16:45etik 20:00etara egoten da zabalik, musika eskolaren egutegi berarekin. Euri egu-netarako alternatiba egoki bat da komunitatearen haur-jolastokia.

MARTXAN JARTZEKO BILERA
Irailaren 30ean, astelehenean, 19:00etan udaletxean. Gaiak: aurreko ikasturteko balorazioa eta hobekuntza proposamenak zerbitzua hobetzeko.

Unitateak mantentzean, ez da murrizketarik Txirinbulon

Irailean familia gehiagok matrikulatu dituzte haien seme-alabak Altsasuko Txirinbulo haur eskolan eta, beraz, aurreko ikasturteko hiru unitateak mantenduko dira. Hiru hezitzaile eta zuzendaria ariko dira lanean. Nafarroako Gobernu eta Altsasuko Udala dira eskolaren finantziazioaz arduratzen direnak. Matrikula jaitsi zela eta foru administrazioak ezarritako ratioak betetzen ez zirenez, udan alarma piztu zen udalean eta Txirinbuloko guraso elkartean. Nafarroako Gobernuak murriztu eginen zuen diru-laguntza eta hezitzaile bat gutxiago izanen zen haur eskolan. Udaleko Ongizate Batzordeak gaia aztertu eta adostasunera iritsi ziren,

urtebukaerara arte hezitzaile bat kontratatzea eta haren solda udalak eta gurasoek erdibana ordaintzea. Neurri hori bertan behera utzi zuten herenegungo udal bilkuran, batzordeko buru Unai Hualdek azaldu digunez.



Zelandiko itxitura berrituko du udalak

Altsasuko Udalak 61.014,9 euro bideratuko ditu eskola publikoko itxitura berritzeko. Horretarako udalak hiru langile kontratatuko ditu. Lan hori Hezkuntza Departamentuak 2006. urtean egin behar zuen, eskola handitzeko eta egokitzeko lanen hitzarmenean hala jasoa zegoelako. Baina ez zuen egin. Altsasuko Udalaren asmoa da eskola handitzeko lanengatik departamentuarekin duen 160.000 euroko zorra negoziatzea eta txikitzea. Lan horiekin batera ikastetxe publiko teiltua iragazkaitzeko ere zenbait konponketa eginen ditu udalak. 143.021,45 euroko aurrekontu adute lanek eta departamentuak 6.456,92 euroko laguntza eman du.

SAKANA

Gudari eguneko manifestazioa debekatuta

Gudari eguna dela eta ezker abertzaleak Etxarri Arangatzen manifestazioa egiteko deialdia egin zuen, gaurko, 19:00etan. Espainiako Gobernu Ordezkaritzak manifestazioa debekatu egin du. Ezker abertzaletik erakunde horren “inposizioa eta debeku politikoak” salatu dituzte.

Egiaren bidean, askatasuna amets leloa du aurtengudari egunak. Ezker abertzaletik azaldu duteenez, “gure herriak merezi eta behar duen egia eta aitortza aldarrikatu nahi da” gaur. Horrekin batera, gogoan izan nahi dituzte “askatasunaren aldeko hamarkada luzetako borrokan aritu direnak; ehun-

daka dira bere bizia ere eman dutenak”. Hilaren aurreneko egunean Otsoportillon haietako batzuk omendu zituztela eta ostiralean, herriz herri, gudari guztiak omendu eta gogoratuko dituzte. Sakanan ere borroka horretan hildakoak izan direla gogora ekarri dute, Mikel Arregiren kasua adibidetzat jarritz. Ezker abertzaletik gogora ekarri dute azaroan beteko direla lakuntzarraren “erailketaren 34. urtemuga, aitzaki ona izan daiteke askatasunaren aldeko militante eta gudariei behar bezalako omenaldi bat egiteko”.

>> Altsasu

Sunsundegiko langile ohiaren heriotzaren salaketa kalean

LAB sindikatuak deituta aurreko ostegunean 300 bat pertsonak manifestazioa egin zuten bi egun lehenago bere buruaz beste egin zuen Sunsundegiko langile ohiaren heriotza salatzeke. Sindikatuko Sakanako arduradun Gaizka Uhartek akaberran adierazi zuen “patronalak eta kapitalistak dira zulo beltz honetan sartu gaituztenak: etxe kale-ratzeak, kaleratzeak, prestazioen agortzeak Altsasun eta Euskal Herrian ehunka hildako izatea ekarri du. Kapitalismoak hil egingen du”. Inguruan egoera latzean jende



Lan erreformaren aurka eta langileen baldintzak hobetzeko premia azaldu zen.

asko dagoela gaztigatu zuen Uhartek; “hau aldatzen ez bada, heriotza gehiago etorriko dira”. Hildakoak sindikatuari egindako ekar-

pena eskertu ondoren adierazi zuenez, “gure omenaldirik onena antolatzea eta borrokan jarraitzea izanen da”.

Zuzenketa >>

CPVren jarduera berri baten berri eman genuen aurreko astean. Zementuaz aparte magnesio-oxidoa eta dolomia sinterizatua produzituko ditu porlandegiak. Baina esan genuenaren kontra Europar ez dago legediririk jarduera bat lau urte baino gehiago edo gutxiagorako zehazten duenik. Enpresak lau urtez jardun hori egingen du eta Europatik ezarritako emisio-mailak lortzeko behar diren teknika onenak ezarri beharko lituzke. Baina Nafarroako Gobernuaren iritziz kostuak enpresarendako “neurritz kanpokoak dira ingurumen onuraren aldean”, lau urtez ariko enpresa jarduera horretan. 3 Mugak Batera plataformak jarduera oso kutsagarria dela gaztigatu du. Bestalde, estatu mailako hezkuntzako greba baten berri eman genuen 8. orrian. Irailean beharrean lastailen 24rako dago deituta protestaldia.

FESTAK Uharte Arakil: San Migel festak

>> **Irailak 27, ostirala**
12:00etan Txupinazoa eta auzatea.
12:30ean Uharte Arakilgo Erraldoien eta Buruhandien Konpartsa.
14:30ean Kuadrilen arteko III. paella lehiaketa. Udalak ardoa eta ogia jarriko du.
17:00etan Herri jolasak helduendako plazan.
20:00etan Auzatea.
20:00etan Play back lehiaketa. Izena momentuan emango da.
00:00etatik 04:00etara Dantzaldia Erromeria.Kom taldearekin.

>> **Irailak 28, larunbata**
12:00etan Meza.
12:45ean Uharte Arakilgo Konpartsa.
13:00etan Auzatea.
14:30ean Herri bazkariak: Udai Plazan jubilatuen bazkaria; Donibane Plazan herri bazkaria. Eguraldi txarra bada frontoian.
17:30ean Bat-batean (bertso musikatuak), Oskar Estanga eta Haimar Karrikarekin.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Egan taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 04:00etara Dantzaldia Egan taldearekin.

>> **Irailak 29, igandea**
12:00etan Meza nagusia.
12:45ean Uharte Arakilgo Konpartsa.
13:00etan Auzatea.
13:30etik 14:30era Mariatxiak Duo Azalan taldearekin.
17:30ean Haurrendako jolasak eta puzgarriak.
19:00etan Txokolatada plazan.
20:00etan Auzatea.
20:00etatik 24:00etara Haurrendako mozerro dantzaldia Bixenterekin.
22:00etan Zezensuzkoa.

>> Ekai

Herritarrak mahai inguruan

San Migel ospakizuna dela eta, bihar gauean elkartean afaltzera bilduko dira ekaitarrak. Ondoren, musikari baten laguntzaz ordu txikiak arte egonen dira. Ospakizunek hurrengo egunean izanen dute segida, 10:30ean eginen den mezarekin.

>> Arbizu / Lizarraga

San Migel ospakizunak

Aralarko aingueruaren eguna da etzi eta, horregatik, Arbizon arratsaldez auzatea izanen da. Batzuek afaltzen despedituko dute eguna. Lizarragan sanmigeldarren kofradiako kideak ermitan eginen den mezan elkartu eta ondoren bazkaria izanen dute.

FESTAK Olazti: San Migel festak

>> **Irailak 27, ostirala**
19:30ean Txupinazoa kultur etxetik. Erraldoiak eta buruhandiak.
19:45ean Japoniar bonbak Intsumisioaren plazan.
19:45etik 22:00etara Disko festa San Migel plazan.
20:00etan Kakahuete, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katilueta.
22:00etan Zezensuzkoa.

>> **Irailak 28, larunbata**
9:00etan Dianak Olazti eta Ziordiko koruekin.
10:00etan VII. Olatzagutia-Urba mendi lasterketa.
13:30ean VII. Olatzagutia-Urba mendi lasterketako sari banaketa. Antolatzailea: Sutegei Taldea. Laguntzailea: Olaztiko Udala.
14:30ean Herri bazkaria udal pilotalekuan Pasai txarangarekin.
15:30etik 19:30era Jolas parkea. (Eurria eginez gero Erburua kiroldegian).
19:00etan Antzerkia: Fulanito eta Menganito Trokolo Teatro. Sarasate plazan. (Eurria eginez gero eskolako frontoian).
20:00etan Japoniar bonbak Intsumisioaren plazan.
20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Trikitiens taldearekin. San Miguel plazan.
20:00etan Kakahuete, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katilueta.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:00etan 3:00etara Dantzaldia Trikitiens taldearekin, San Miguel plazan.

>> **Irailak 29, igandea.**
San Migel
11:00etatik 14:30era Artisau azoka San Miguel plazan. (Eurria eginez gero Erburua kiroldegian).
11:00etatik 14:30era Olaztiko fosil eta mineralen erakusketa. Kultur Etxean.
11:00etatik 13:00etara Txutxu tren. Irteera: Intsumisioaren plazatik.
11:30ean Kalejira erraldoia buruhandiek in eta Sakanako trikitilarietara.
13:00etan Dog show naziorteko txakur erakustaldia. Sutegei parkean (eurria eginez gero eskolako frontoian)
16:00etatik 19:00etara Txutxu tren. Irteera: Intsumisioaren plazatik.
18:00etan Ortzadar dantza taldea, futbito pistan. (Eurria eginez gero Erburua kiroldegian).
19:30etik 21:30era Dantzaldia Ibai Berriak taldearekin, San Miguel plazan.
19:45ean Japoniar bonbak Intsumisioaren plazan.
20:00etan Kakahuete, gazta eta ardo banaketa zilarrezko katilueta.
21:30ean Zezensuzkoa.

Gazte Asanbladaren egitaraua

>> **Irailak 27, ostirala**
18:00etan Frontenis txapelketa.
23:00etan Kontzertuak: Potroberoak, Kalandraka, Kagando blando eta Fernando huevos colgando

>> **Irailak 28, larunbata**
Herri bazkaria.

>> **Irailak 29, domeka**
17:00etan Goitibehera lasterketa. Patata tortilla txapelketa. Ondoren pintxo-potea.

MOTZEAN

Gazteguneako atearak zabaltzear

Asteazkenetik domekara eta jai egunetan, 17:00etatik 21:00etara

Heldu den asteazkenean zabalduko ditu atearak, atzera ere, Altsasuko

Intxostiapunta gazteguneak. Erakineko atearak zeharkatzera ausartzen diren gazteak ikasteko gela, entseatzeko gelak, ziber gela, wifi gunea eta sukaldia opatuko dituzte. Horrekin batera, eskaintza zabala tailer eta ikastaroetan, maila guztiak eta bestelakoak. Altsasuko Udaleko Gazteria Sailak gazteak Intxostiapunta

taz goatzera animatu dituzte.

Asteartean zabalduko da Olaztikako ludotekako izen ematea

Lau urteko haurren familiendako informazio bilera lastailaren 3an,

ostegunean, 18:30ean

Lastailaren 7an, astelehenean, zabalduko ditu atearak Akelarre ludotekak. Han 2009tik aurrera jaiotako haurrek, hau da, lau urtetik aurrerakoek joateko aukera dute. Izen ematea lastaileko aurreneko lau egunetan egingen da, heldu den asteko asteartetik ostiralera, eta ludotekan

bertan, 15:30etik 18:30era. Izena ematen duten haurrak gehienez bi saiotara joan daitezke, saioko 25 plaza daude. Ikasturteko matrikulagatik 33 euro ordaindu beharko dira. Familia bereko bigarren kideak 21 euro eta hirugarrenak dohainik izanen du. Diru kopurua bazkide izateagatik ordaintzen da.

» **Olatzagutia**

PPk udalak onartutako hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen kontra egin du

Gora jotzeko helegitea aurkeztu du Nafarroako Administrazio Auzitegian, zenbait atal moldatu edo baliogabetzeko eskatuz

Popularrek Olatzagutian duten zinegotzi Oscar Alvarezek adierazi duenez, maiatzaren 29an gaztelaniaren eta euskararen erabilerrari buruz onartutako irizpideek “ez dirudi legedia betetzen dutenik, euskara argiki lehenestean. Herriko hizkuntza bat diskriminatuko da eta ezin da onartu”.

PPko kideak gaineratu duenez, “gure alderdiak eskura dituen baliabide guztiak erabiliko ditu gaztelania eta hura erabiltzen dituztenak ez diskriminatzeko”. Gaztelania “gure kulturaren funtsezko elementua da eta ezin dugu utzi erakundeetatik hura baztertzeko estigmatizatzea”. Alvarezen iritziz “Nafarroa euskaldunizatzeko Bilduren bide-orrian hau beste urrats bat da eta ezin dugu onartu”.



Jendea tabernako terrazan festetako aurreneko egunean.

Irizpideak

Olatzagutiko Udalak bere eguneroko zereginetan harremanetan izaten da olaztiarrekin, udalaren beraren barne sailekin eta beste administrazio batzuekin. Harreman horiek ahoz, idatziz eta modu telematikoan izaten ditu eta horiek nola egin zehazteko onartu zituen hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Sakanako gainontzeko udaletan eta Mank-en bertan ere hizkuntza irizpideak ere onartu dira. Sakanako Mankomunitateko Euskara Batzordeak egindako proposamena da. Udal bakoitzak bere errealitateetik abiatuta berera egokitzeko proposamena egin zuen, beti ere, denbora jakin batean helburuak lortzeko. Horretarako, euskara teknikariek udal arduradunekin elkarlanean irizpide horien betetzeari buruzko jarraipena egingen dute. Ezarri aurretik ere bilerak egin dira aldean artean.

Helegitea

PPren iritziz **idatzizko komunikazioetarako** irizpideak ematean bi hizkuntzetarako irizpide ezberdina erabiltzen da. Adibide gisa jarri du Udalak jasotako agiri bati erantzuna eman behar dionean nola jokatu dezakeen: euskaraz erantzun ahal izanen dio gaztelaniaz jasotako agiri bati; orokorrean, bi hizkuntzetan erantzunen die bi hiz-

kuntzetan jasotako agiriei, betiere aukera izanik euskara hautatzeko eta, azkenik, euskaraz erantzunen die euskaraz jasotako agiri guztiei.

Olatzagutiko Udalak onartu zuen bi hizkuntzetako euskarri guztietan lehentasuna emanen zaiola euskarari (elebitasun normalizatzailea). Horretarako, koka lekuan eta letra tamaina handiagoa erabiliko ditu. Popularrek ere horren kontra egin dute.

Administrazioek zein hizkuntzetan atendituko dituzten libreaki erabakitze eskubidea aitortzen die Euskararen Legeak herritarrei. Olatzagutiko Udalak onartutakoaren arabera udalaren komunikazioak euskara hutsez jaso nahi dituzten olaztiarren izenekin zerrenda bat osatuko da. Baina popularrek hor diskriminazioa ikusten dute. Baita intimitatearen eta norberaren irudiaren babesaren eskubidearen eta datuen babeserako legearen kontrako neurria.

Lan hizkuntza araututa utzi du irizpideetan Udalak. Hala, osoko bilkura, Tokiko Gobernu Batzarren eta informazio organoen bileren aktak egiten diren hizkuntzan jasoko dira (batez beste, zinegotzi guztiak erdaldunak dira). Irizpideetan zehazten da osoko bilkuretak eta Tokiko Gobernu Batzarren ebazpenak euskaraz ere idatziko direla, bilera gaztelaniaz egin bada ere. PPk hor gaztelaniaren diskriminazioa ikusi du.

Hizkuntza paisaiari buruzko irizpideak ere onartu zituen Olatzagu-

tiko Udalak. Irudi korporatiboari dagokionez, udalaren irizpide orokorra izanen da hura osatzen duten elementu guztiak bi hizkuntzetan egotea, edo euskaraz bakarrik, besteak beste, honakoak: zigiluak, tanpoiak, logotipoak eta idazpuruak, eta orobat toponimia txiki ofiziala (kale, plaza, eraikin eta hiriko gainerako elementuen izenak).

Bestalde, udal instalazioetan jartzen diren informazio euskarriak, hau da, errotiluak eta noizbehinkajartzen diren jakingarriak, betiere bi hizkuntzetan edo euskara hutsean egon behar dira. “Euskararik ez dakitenen eskubideak deusetan ukatu gabe, zigilu, tanpoi, logotipo, idazpuru eta errotiluen testua euskara hutsean egon behar da, honelakoetan: testuaren grafia antzekoa den euskaraz eta gaztelaniaz; mezuaren edukia argi eta garbi adierazten duen piktogramak osatzen duenean edo ezagutzera eman beharreko jarduerak eta hartzailearen berezitasunek horretara behar dutenean”.

Udalaren iragarki ofizialak eta gainerako publizitatea bi hizkuntza ofizialetan egingen da. Nolanahi ere, iragarkiak euskaraz hutsez aterako dira euskarazko hedabideetan. Horiek guztiak, praktikan gaztelaniaren diskriminazioa direla salatu du Alvarezek.

Azkenik, PPk aurkeztutako helegitean izenburuari ere erreparatzen dio. Irizpide hitza agertzen dela dio eta ondoren, testuan, ordenantza hitza eta ez direla berdina dio.

» **Urdiain**



Teilatua berrituta, aterpea izanen dena itxura hartzen ari da.

Autzetxean aterpea

Urdiaingo Udalak Urriztizelain, igerileku ondoan, dagoen borda konpontzen eta itxuraldatzen ari da. Autzetxean lanean ari dira Udalak udan kontratatu dituen bi langileak. Haien egitekoetako bat da autzetxearen hegoaldeko muturra, bordaren heren bat, aterpe bihurtzea. Ekaitzak edo zaparradak oinezkoak basoan harrapatzen dituenean non babestu izan dezaten. Autzetxearen beste bi here-

nak ukuilu izaten segituko dute. Lan horiekin batera, Urdiaingo Udala autzetxeako teilatua berritzen ari da. Izan ere, tokiren batean itajura handia zuen eta hurrengo neguan elurteak baleude erortzeko arriskua izan liteke. Itajura hori kentzeko zura ordezkatu eta autzetxeako teilatu guztia berritu dute. Horretarako lehendik zeuden teilak erabili zituzte.

Sareko komunitatea hazten

1.130 lagun

1.000 bisita egunero

Guaixe.net

800 jarraitzaile



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 19 70 70

www.tanatoriosirache.es

Bartolo Goikoetxea Lasa



Zure familiak,
beti gogoan.

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua gutunak@guaixe.net-era edo hots egin
948 564 275 telefonora

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

2 TEKNOLOGIA

3 LANA/NEGOZIOAK

4 DENETARIK

5 IBILGAILUAK

6 HARREMANAK

7 AISIA/KIROLA

8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ERRENTAN EMAN

Etxarriko erdigunean pisua alokatzen da. 4. solairua, igogailua, 3 logela, dena kanpoaldera. Bista zoragarriak!! Telefonoa 619- 50 30 95.

Oparitakoak

3 txakurkume oparitzen dira. Arratoi txakurrak, bi hilabete eta erdikoak. Telef: 678 80 37 34.

3 txakurkume oparitzen dira. Alaiak, politik eta jator jatorrak. Tamaina ertainekoak. Interesatuek hots egin ondoko telefonoetara: 948 56 37 41 edo 646 72 01 33.

Opatutakoak / galdutakoak

GALDUTAKOAK

Haur txirindula. Etxarriko liburutegiko paretan aurreko ostiralean ahaztuta utzi zen. Morea eta berdea da. Opatu duenak hots egin dezala 687 42 43 52 telefonora.

Ikastaroak

Bertso –eskolan izena emateko epea zabalik. Nahikoa izango da herri bakoitzean edo ikastetxe bakoitzean lau laguneko talde bat sortzea. Izena emateko e-postaz: nafarroa.transmisioa@bertsozale.com edo j.leitza@gmail.com, eta telefonoz 948- 14 37 47 edo 652 15 56 01. Hilaren 27ra arte.

AESeK ikastaro hauek antolatu ditu. Ekonomia eta Finantzen kudeaketarako hobekuntza alderdi praktikoak, 30 ordu, urriaren 3tik urriaren 11ra; Planoen interpretazioa, 45 ordu, urriaren 21etik azaroaren 21era; Enpresa blog eta orrialdeen sorrera, 30 ordu, urriaren 28tik azaroaren 25era; Ingelera C1 (aurreratua), 60 ordu, azaroaren 18tik urtarrilaren 30era; 2D aurreratua eta 3D planoen diseinua, 40 ordu, azaroaren 25etik urtarrilaren 20era.

Cederna Garalurrek ikastaro hauek antolatu ditu. Lehen sektorean eta zerbitzuenean lanean ari diren profesionalak eta langabeei zuzenduta dago. Alfabetatze digitala enplegua aktiboki bilatzeko, Irailak 24,25,26,27 eta 30, 9:00-13:30,Altsasun. eta Olaztin urriak 7,8,9,10 eta 11, 9:00-13:30. Abeltzaintzako ekoizpenaren erren-

tagarritasuna hobetzea larreak ongi erabiliz, lastailak 1,2,8,9,15,16,22 eta 23, 10:00-14:00, Arbizon. Sormena zure enpresan; berrikuntzak bezeroa abiapuntu hartuz, lastailak 18,23 eta 30 eta azaroak 6,13 eta 20 Arbizon, 9:00-14:00. Informazio gehiago, 948 56 70 10 telefonoan eta info@cederna.es, sakana.admon@cederna.es helbide elektronikoetan.

Altsasuko udal ikastaroen eskaintza. Jose lanak, lentzeria, zeramika artistikoa, etxerako konponketak, eho-ziriak. Tailerrak: hizketaldi literarioak, heldueko plazerra, autoezagutza eta garapen pertsonala, ahalduztea, lortuak antzerki tailerra. Informazio gehiago iortia@altsasu.net, 948 56 42 72.

UGT sindikatuak antolatutako ikastaroak. Psikomotrizitate geriatrikoa; Elektrezitate II; Aurreko eskorgak erabiltzeko operadorea; Zeharkako orga jasotzaileak erabiltzeko gidatzailea. Informazio gehiago 948 46 71 20.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketak

VI Hausnartu Euskal Soziolinguistika Sarieta. Lanak aurkezteko epea irailaren 30ean despedituko da. Informazioa www.sociolinguistika.org/hausnartu atarian.

Oharra

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Liburuak truke. Informazio gehiago larreza-baldk@inigoaritzka.com

Nafarroa Oinez. Lagundu nahi bagaituzu, honako esteka honetan klik egin eta izena eman ezazu. Eskerrik asko!<https://docs.google.com/spreadsheets/linkedform?formkey=dEZwZOZidIV6RUVTdHFjMklvR1c4TGc6MQ>

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrizazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburuak argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkarte eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarri edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoe-na: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioak, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztiak, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ospina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko

boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eram- man: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkene- tan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin beraien ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hiz- kuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00eta- tik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Iruztunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo [immigrazioa@sakana- mank.com](mailto:immigrazioa@sakana-mank.com) posta elektronikoan.

Gazteendako sexualitate aholkularitza. Hileko lehen astearteetan, 15:00etatik 17:00etara Altsasuko Intxostiapunta gazte gune- an (Burunda kaleetik sartuta. 948 564 785 telefo- noa edo gazteria@altsasu.net helbidea). Adina: 12-30 urte.

Izan zaitez Mintzakide! Euskara ongi dakien bat ikasten edo trebatzen ari den bizpahiru per- tsonarekin gustuz da, asteen behin, ordu batez. Taldeak gustuko duena egitea aukeratzen du: kafea hartu, paseatu... baina beti euskaraz. Informaziorako: 607 624 392 telefonoa, saka- na_mintza@aek.org e-posta edo sakanamintza.blogspot.com ataria.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berresku- ratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

Iparaldeko Ikastolak laguntzeko. Bi kontu zenbaki zabaldu dituzte jendeak dirua emateko: 3035-0059-82-0590731197 (Euskadiko Kutxa) eta 2101-0045-97-0003310786 (Kutxa).

JAIOTZAK

- **Iker eta Juan Roman Martin Santander,** irailaren 12an Altsasun.
- **Ekhi Arrese-Igor Txueka,** irailaren 14an Arbizon.
- **Unai Perez de Viñaspre Zabalza,** irailaren 15ean Arbizon.
- **Arantxa Arza Llamas,** irailaren 17an Altsasun.
- **Mikel Cano Santano,** irailaren 17an Altsasun.
- **Amina Hambli,** irailaren 20an Iruztunen.

EZKONTZAK

- **Nagore Arruti Berho eta Josu Agirre Razkin,** irailaren 21ean Arbizon.
- **Juan Mendia Fernandez eta Mari Angeles Navarro Otaegi,** irailaren 21ean Altsasun.

HERIOTZAK

- **Francisco Javier Paniagua Martin,** irailaren 17an Altsasun.
- **Bartolome Goikoetxea Lasa** lizarragatarra irailaren 21ean Etxarri Aranatzen.
- **Mikaela Berastegi Navarro** lizarragatarra, irailaren 22an Iturmendin.
- **Clemencia Zubiria Ostiza,** irailaren 23an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Garraio laguntzarako diru bilketa. Sortzen Ikasbatuazek eremu erdaldunekoak diren eta ikasketak D ereduan egiteko beste eskualdeetara joan behar duten ikasleen garraioa laguntzeko Euskadiko Kutxan hurrengo kontu zenbakia zabaldu du: 3035 0058 36 0581182278.

PILOTA

ZABALETA ARDOAREN DESAFIOAN: Larunbatean, 16:45ean, Domus Dei ardoaren desafioa jokatu da Adarragan. Binakoan Gorka Esteban eta Jose Javier Zabaleta etxarrendarrak Victor Esteban eta Begino izango dituzte aurkari.

koan Gorka Esteban eta Jose Javier Zabaleta etxarrendarrak Victor Esteban eta Begino izango dituzte aurkari.

kirola >>

Areto futbola

Xota Nafarroaren garaipena Galizian

Xota Nafarroak 1-2 irabaziz Burelari Galizian jokatu zuen partidaren. Etxean Jumillaren kontra galdu eta gero, Xotarendako oso inportantea zen Galizian puntuatzea eta garaipen horrek animo handiak emandizkie Imanol Arregiren mutilei. “Kontentugau de, baina oraindik asko dago egiteko” adierazi zuen partidabukaeran Imanol Arregi entrenatzaileak. Sailkapen orokorrean Inter Movistar da liderra, 6 punturekin, Bartzelonarekin puntutara berdinduta. Xota Nafarroa 9.a da, 3 punturekin. Asteburuan atsedena da Xotak.

RAFA USIN SELEKZIOAREKIN

Rafa Usin jokalaria Espainiako areto futbol selekzioarekin kontzentratu dago, Ceutan, 2014ko ilbeltzean eta otsailean Amberesen jokatu den Europako Txapelketak prestatzeko. Espainiako selekzioak bi lagunarteko partidajokatuko ditu Ceutan, Belgikaren kontra.

Mendi lasterketak

Urbasatik barna korrikan

BIHAR JOKATUKO DA, 10:00ETAN, VII. OLATZAGUTIA-URBASA MENDI LASTERKETA. MOMENTUZ KORRIKALARI 237 DAUDE IZENA EMANDA

Olaztik San Migel festekin batera, bihar, larunbatean, VII. Olatzagutia-Urbasa mendilasterketa jokatuko da. Proba Olaztik Sutegi kirol elkarteak antolatu du, Olaztik Udaren eta Nafarroako eta Euskal Herriko Mendi Federazioen laguntzarekin, eta Nafarroako Mendi Lasterketen Koparako eta Euskal Koparako baliagarria da.

Ibilbidea

Olaztik mendi lasterketak 23,2 kilometro ditu, horietatik 2,4 asfaltuan. Desnibel positiboa 1.367 metrokoa da. Korrikalariak goizeko 10:00etan emanen diote hasieraprobari, Clinker paretik (528 m). Gorputza berotzeko denborarik gabe, zuzenean Urbasako ipargailurreriako punturik altuenera joko dute, Tontorraundira (1.157 m). Mendi gainean, bira goraberatsua egingen dute, ekialdera



Urbanan gora ibili beharko dute korrikalariak bihar.

Altsasuko portugainetik (1.150 m) Zelai handiraino (1.113 m), eta mendebaldera Gainsoil (1.068 m) eta Ordotzeko putzuraino. Handik jaisten hasiko dira, Urbasako portugainera, eta gainbehera zorrotzetik Olaztiraino iritsiko dira. Ibilbidean 4 denbora kontrol puntu izanen dira, edaria eta janaria

hartzeko guneak eta osasun laguntza ere izanen dituzte puntu estrategikoetan. Bestalde, antolakuntzak kadeteendako 15,6 km-ko ibilbidea antolatu du. Momentuz 237 korrikalari daude izena emanda proba nagusian. Aurreko urtean 272 korrikalari osatu zuten ibilbidea eta Fernan-

www.olatzagutia-urbasa.net
Probaren inguruko informazio guztia, izen emateak, mapak eta beste.

do Etxegarai eta Laura Sola izan ziren azkarrenak. Lehen sakandarra Angel Arrieta izan zen.

Sariak

Sari-banaketa ekitaldia helmugan izanen da 13:30 aldera. Maila absolutuan, neska eta mutil onenek, hurrenez hurren, 350 euro, 175 euro, 125 euro eta 75 euro jasoko dituzte. Horretaz gain, irabazleek txapela jantziko dute eta lehen hirurek trofeoa jasoko dute. Lehen beterranoek 75 euroko saria izanen dute. Promesa, junior eta kadete onenek garaikurra jasoko dute. Helmugara iristen diren guztiek opari poltsa jasoko dute, eta korrikalari guztien artean Urbasako 10 gazta banatuko dira.

Atletismoa



Ergoienako Udak Dantzaleku Sakana klubaren laguntza eskertu du.

Ergoienari buelta

JAVI MORENO IZAN ZEN ERGOIENARI BIRA EMATEN AZKARRENA. EGUZKIA LAGUN, GIRO POLITA IZAN ZEN DORRAON

Ergoienako Bira (8,6 km)		
1.	Javi Moreno	33:46
2.	Felix Benjumea	33:55
3.	Juantxo Arregi	33:55
8.	Juantxo Azurmendi	39:45
10.	Santi Agirre	40:14
11.	Jose Antonio Salgado	40:38
13.	Iñigo Maiza	43:00
14.	Juan Carlos Perez	44:22
16.	Erkuden San Martin	45:00
18.	Marijo Arza	46:55
19.	Jone Pelaez	46:55
20.	Aingeru Azazeta	46:55
21.	Pello Larraz	47:03
23.	Ismael Lz de Goikoetxea	47:18
24.	Kepa Paniagua	47:48
28.	Patxi Atxa	49:50
29.	Jose Ignazio Reparaz	51:27
31.	Ixa San Martin	54:40

herriak batu zituen. Guztira 81 korrikalari aritu ziren, 37 proba nagusian. Hasieratik aurrean kokatu ziren Felix Benjumea, Juantxo Arregi eta Javi Moreno. Bukaeran Javi Morenok aurrea hartu zien biei eta bakarrik iritsi zen helmugara. Emakumezkoetan Erkuden San Martin etxarriarra izan zen azkarrena (45:00), Marijo Arza eta Jone Pelaez altsasuarrei 1:55 atereaz. Txapeldunek Unanuko kattola bat jaso zuten opari, eta bigarrenek eta hirugarrenek trofeoak. Lehengo ergoendarrak, Juan Patxi Lizarraga dorrobarrak, bi pertsonendako afaria irabazi zuen Lizarragako Zugainen. Probako lehenengo beterranoak, Juantxo Azurmendik, kattola jaso zuen. Korrikalari guztien artean Ergoienako produktuez osatutako 23 lote zozketatu ziren.

Eguraldia lagun, larunbatean Dorrao izan zuen irteera eta helmuga IX. Ergoienako Birak. Ergoienako Udak antolatutako proban lehenik eta behin kategoriatxiki lasterketak jokatu ziren, Dorraon, eta ondoren proba nagusia, 8,2 km-koa eta Ergoienako hiru

Mendi lasterketak

Unzurrunzaga fin Beriainen

UHARTE ARAKILGO ARALAR MENDIK IRABAZI ZUEN NAFARROAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Uhartearakil-Beriain Km Bertikala (5 km):		
1.	Ionut Zinca	42:42
6.	Ander Unzurrunzaga	46:40
10.	Jose Luis Beraza	47:26
14.	Aritz Munariz	48:36
18.	Angel Arrieta	49:11
26.	Jose Javier Maiza	50:54
27.	Adur Maiza	51:08
33.	Julen Paniagua	51:50
36.	Mikel Satrustegi	52:06
37.	Mikel Berastegi	52:07
42.	Iñaki Lopez	52:37
44.	Mikel Sasiain	52:44
48.	Borja Gonzalez	53:43
53.	Patxi Cano	54:03
58.	Iker Flores	54:33
62.	Patxi Albeniz	54:43
68.	Juan Felipe Lizarraga	55:11
69.	Alberto Razkin	55:11
73.	Alatz Agirre	55:32
93.	Mikel Irigoien	58:44
95.	Imanol Irurtzun	58:55
97.	Luis Flores	59:10
103.	Mikel Iriarte	1:00:13
111.	Javier Gonzalo	1:02:02
113.	Arantzazu Larrañaga	1:02:06
114.	Juanjo Armendariz	1:02:14
115.	Iraitz Senar	1:02:26
119.	Iban Gonzalez	1:03:01
125.	Ivan Verdugo	1:04:50
127.	Jokin Vilariño	1:05:11
132.	Jorge Martinez	1:07:05
135.	Aitor Salinas	1:10:12
137.	Ibai Gorriti	1:10:24



Unzurrunzaga, gora. Aralar Mendikoak talde onenaren sariarekin. J. OTAEGI



ditu baina sekulako lana egin zuen. Iñigo Lariz izan zen 2.a (43:28) eta Mikel Beunza 3.a (43:42). Emakumezkoetan Leire Agirrezabalaga gailendu zen (49:47), Maite Maiorari ia minutu bat aterata (50:30). Laura Solak osatu zuen podiuma (51:50).

32 sakandar

Aipatzekoa da 32 korrikalari sakandarrek lortu zutela proba osatzea, zenbaki oso handia. Guztien artean Ander Unzurrunzaga izan zen azkarrena. Etxarrikoa 6.a iritsi zen helmugara (46:40) eta probako

lehen beterranoa izan zen. Badirudi urteak ez direla pasatzen, Unzurrunzaga sasoi bikainean baitago. Eta uhartearren lana ere aitortzekoa da. Uhartearakilgo Aralar Mendi taldea, probaren antolatzailea, Nafarroako talde onena izan zen proban, izan ere kilometro bertikala aldi berean Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa baitzen, eta uhartearrak izan ziren garaile.

www.uhartearakil-beriain.com
Probako informazio guztia.

Motoziklismoa

Etxean txapeldun

ALEX MARIÑELARENA TXAPELDUN LOS ARCOSEN. ASTEBURUAN MUNDIALAREKIN DU HITZORDUA, ALCAÑIZEN

Espainiako Abiadura Txapelketa. Moto 2		
1.	Roman Ramos	146 puntu (Team Stratos, Ariane)
2.	Alex Mariñelarena	122 puntu (Targobank Motorsport, Kalex)
3.	Hafizh Syahrin	110 puntu (Petronas Raceline Malaysia, Kalex)

Los Arcoseko Nafarroako Zirkuituak 10.000 motorzale hartu zituen asteburuan, Espainiako Abiadura Txapelketako 5. proba zuzenean jarraitzeko. Tartean zale sakan-dar asko bildu ziren, Alex Mariñelarena pilotu irurtzundarra animatzeko (Moto 2). Pilotuak Moto2ko garaipena eskaini zien zaleei.

Roman Ramos liderrarekin duen aldea txikitzea zen irurtzundarraren helburua eta lortu du, asteburuan egindako lan bikainari esker Los Arcoseko txapelketa irabazi eta sailkapen orokorrean soilik 24 puntuko aldea duelako egun Ramosekin. Bi lasterketen faltan, irurtzundarrak txapelketa lortzeko borrokan segitzen du.

Motor berria, Kalex

Moto 2 mailako bi lasterketa jokatu ziren eta biak ikusgarriak. Lehen lasterketa Hafiz Syahrinek malasiarrak irabazi zuen, eta Mariñelarena 2.a eta Ramos 3.a sartu ziren. Bigarren lasterketan, Roman Ramos liderrazitu bizian aterazen, baina, lehendabiziko buelta bukatu baino lehen, 2. postutik aterazen Alex Mariñelarena lehen postuan kokatu zen. Horrela egon zen tar-te zabal batean, 13. itzulian Romanek irurtzundarra aurreratu zue-

Asteburuan Mundialean, MotorLanden



Asteburu honetan atzera ere Dani Rivas ordezkatu du Alex Mariñelarenak, Blusens Avintia taldearekin. Mundialerako baliagarria den Aragoiko Sari Nagusia dago jokoan, Alcañizko MotorLanden. “Zirkuitu hau gustuko dut eta lan ona egitea espero dut” azaldu digu pilotu irurtzundarrak. Ea aurretik egindako lana baliagarria zaien eta hala den. Lasterketa zuzenean jarraitu ahal izango da igandean, Antena 3 telebistan.

nera arte. Azken 5 itzuliak sekula-koak izan ziren, ia helmugan bertan irurtzundarra gailendu arte (30:56.293). Atzetik sartu ziren Roman Ramos (30.56.317) eta Hafizh Syahrin (31:00.597).

Los Arcosen motor berria estreinatu zuen Mariñelarenak, Kalex motorra, eta erlojuaren kontra lan egin behar izan zuen motorrari egokitzeko. “Usteduthurrengolasterketetarako motorra hobetzeko tar-tea dugula, oraindik ere potentzial gehiago du motor honek” adierazi zuen Mariñelarenak.

Jaioterrian kontentu

“Asteburu hau oso berezia izan da niretako jende asko etorri delako

ni ikustera, familia, lagunak eta herritarrak, eta baita nire babes-leak ere. Oso kontentu nago eurekin guztiekin garaipena ospatu ahal izateagatik” nabarmendu du Alex Mariñelarenak.

I. Irañeta Enduro

Bihar, larunbatean, 15:30etik aurrera, I. Enduro Irañeta proba jokatu da Irañetan, Zikiteam Moto Klubak antolatuta. Beteranoak, juniorrak eta seniorrak ariko dira, eta bertan lehia-tuko dira pilotu sakandarrak. 19:30ak aldera sari emate ekitaldia izango da.

Automobilismoa

Urbasako Igoerarako gutxi falta da

Urriaren 5ean jokatu da, larunbatekin. 14:00etan entrenamendua egingen da eta segidan probako bi txandak

Sakana Motorsport taldeak, Olaz-tiko Udalaren, Maisunea gazte-txearen eta Bierrik fundazioaren laguntzarekin XXXIII. Urbasako Igoera antolatu du urriaren 5era-ko. Urbasakoa automobilismo egu-tegian eta bereziki igoeren egute-gian proba mitikoa da eta pilotu eta zale ugari espero dira urria-ren 5ean Urbasan. Proba Nafarro-ako Mendi Txapelketarako bali-a-garria izango da.

Urbasako Igoerarako atzera kon-taketa martxan dago jadanik, aste eskas bat falta baita pilotuak Urba-san gora ikusteko. Pilotuek 5,7 kilo-metro osatu beharko dituzte, Olaz-tin hasita -38,050 kilometropuntua-

Urbasako portu gaineraino -32,220 kilometropuntua-. Errepidea goi-zeko 9:00etan itxiko da. Autoen egiaztapenak 9:00etatik 12:30era egingen dira eta entrenamendua 14:00etan hasiko da. Ondoren bi txanda jokatu dira.

Antolatzaileek hainbat eskari egin nahi dizkiete zaleei, proba behar bezala antolatu eta segurta-suna bermatzeko: antolakuntzak zehaztutako segurtasun eremuak errespetatzea, norberak berezabo-rrak jasotzea eta antolatzaileek zehaztutako aholkuak jarraitzea.

Boluntarioak

Proba antolatu ahal izateko bolun-tarioak behar dira. Jarri harrema-netan Sakana Motorsport taldea-rekin edo Bierrik fundazioarekin -948 564 275-.



Iban Lopez de Goikoetxea Gipuzkoako Rallyan ariko da asteburuan, Lander Mella kopilotuarekin. UTZITAKOA

Futbola

Etxarrik ekin dio denboraldiari

IAZKO BLOKEAN OINARRITUTA ALDAKETA GUTXI BATZUREKIN, DAVI MARTINEZ ENTRENATZAILE BERRIAREKIN DABILTZA LANEAN

Erregional mailako 2. jardunaldia jokatu da. Lehendabiziko jardu-naldian Errotxapearekin bana ber-dindu zuen Etxarrik, eta igande-an, etxean jokatu tako lehendabizi-ko partidari, 1-3 galdu zuten etxarriarrek Berriozarren kontra. Liga hasi besterik ez da egin.

Etxarri Aranatz futbol klubak 5 talde ditu: erregionala, jubenilak, kadeteak, haurrak eta kimuak. Guztira 120-130 futbolari inguru ar dira. “Alde horretatik kontentu gaude. Etxarrin taldea dagoen bitar-tean ona da herriarendako” azal-du digu Etxarriko lehendakari-or-de Iñaki Elvirak. Eduardo Elso da Etxarriko presidentea.

Erregional taldeak entrenatzai-le berria dauka, David Martinez noaindarra. Jokalarien artean ez dago aparteko aldaketarik. “Infan-tiletatik hiru jokalarik igo dira, gero Iruñatik bi etorri dira, izatez kolonbiarrak direnak. Eta beste

Etxarri Aranatz erregionala 2013-2014



Atezainak: Ivan Gorritz eta Urko Resano. Atzelariak: Luis Goñi, Unai Artieda, Markel Azkona, Xabier Urrestarazu, Markel Erdozia eta Alberto Garziandia. Erdilariak: Asier Urkia, Asier Arratibel, Pablo Jauregi, Gentza Erdozia, Mikel Goikoetxea, Amañur Ginea, Alain Iriarte, Edu Elso, Joseba Lizarraga eta Mauro Marin. Aurrelariak: Aritz Ikobalzeta, Javier Rueda, Camilo Marin eta Oier Huizi. Entrenatzailea: David Martinez. Laguntzailea eta atezain entrenatzailea: José Guilloorme.

guztiak aurreko urtekoak dira. Jokalari gehienak etxarriarrak dira. Gero Altsasuko pare bat, arbizuarren bat eta Iruñeko biak” gaineratu du Elvirak. Aldaketa nabarmenena, beraz, entrenatzai-

le berriarena da. “Jendea gustu-ra dago entrenatzen. Hemendik 6 hilabetetara esango dugu nola doan gauza, baina momentuz gus-tura hasigara” adierazi digu lehen-dakariorde izateaz gain kadeteen

taldeko entrenatzaile den Elvirak. Etxarriren helburua ahalik eta lan onena egin eta ahalik eta goien sailkatzea da. “Nola ikusten duan? Beti da zaila. Gainera oso aldako-rra izaten da. Igual gaizki hasten

Asteburuko jardunaldia

3. Maila: Oberena-Lagun Artea Erregionala:
Altsasu - Doneztebe
Kirol Sport - Lagun Artea B
Etxarri Aranatz - Ardoi

zara eta gero ongi, edo alderantziz... guk behintzat lan onena egiteko asmoa dugu” esan digu Elvirak.

Ereserki berria

Etxarrikereserki berriamustudu, herriko musikariek egindakoa. Igandean jarri zuten lehen aldiz, partida hasi baino lehen. “Anima-tuada, Urroztarran antzekoa, igual gogorrago. Etxarriar peto-petoa. Igandero jarriko dugu, partidak hasi baino lehen” esan digu Iñakik.

Beste emaitzak

3. mailan dabilen Lagun Arteari 0-2 irabazi zion Corellanok. Erre-gional mailan Altsasuk 1-0 iraba-zi zion Beti Onak B taldeari eta Lagun Artea B-k eta Ardoik bana berdindu zuten.

Botxa



Binakako finalistak. UTZITAKOA

Botxetan blai

Irurtzungo Iratxo elkartean botxa taldea dago. Uda eta udazken aldera petanka antzeko joko tradizionala den botxa txapelketak antolatzen dituzte. Berriki Binakako Iratxo Botxa Txapelketa jokatu dute eta Julen Iragi eta Marian Moreno izan dira irabazleak. Orain Banakako Txapelketa hasi da Iratxoko botxategian. 27 partaide ari dira lehian, 18 heldu eta 9 gazte. Urriaren 5ean despidituko da.

ELKARTEEN ARTEKOA

Igandean Elkarteen Arteko Botxa Txapelketa jokatu dute Berrioazar, Antsoain, Txantrea, Amaya, Natación eta Irurtzungo botxa taldeek. Binaka lehiatuko dira eta jokalaria bakoitzak 3 botxa izanen ditu. Guztira 12 bikote ariko dira, goizeko 9:30ean hasita. Gaueko 9:00akaldera bukatuko dute.

Irristaketa



Hiru saritutakoak. UTZITAKOA

Sakandarrak puntan San Juan Trofeoan

Larunbatean abiadura irristaketako San Juan trofeoa jokatu zen Iruñean. Tartean lehiatu ziren Sakana Irristaketa Klubeko irristalariak. Iratxe La Puente bigarrena sailkatu zen emakumezkoen mini mailan, Ander Villalobos bigarrena izan zen benjaminetan eta Unai Villalobos hirugarrena haurren mailan. Denboraldiari hasierabikaina eman dioklubak. Bestetik, Sakanako irristaketa eskolak hurrengo astean hasiko dira lanean.

Trontza

Mazkiaran-Mitxelena Nafarroako Arpana Txapelketa Mistoan

Bihar, larunbatean, 18:00etan, Nafarroako Arpana Txapelketa Mistoan jokatu da Igantzin. 9 bikote lehiatuko dira, Ainhoa Mazkiaran-Bixente Mitxelena altsasuarrak tartean. Biko bakoitzak 45 ontzako enborrari 10 epai egin beharko dizkio.

Txirrindularitza

Ezagutu Sakana bizikletan!

IGANDEAN XX. SAKANAKO TXIRRINDULA EGUNA IZANEN DA. TXIRRINDULARIAK GOIZEKO 9:00ETAN ATERAKO DIRA IRURTZUNDIK, ALTSASUN BUKATZEKO (39 KM)

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Burunda eta Aralar Txirrindularitza Kluben laguntzarekin, eta hainbat babeslerekin –Irurtzun eta Altsasuko Udala, Nafarroako Gobernua eta Nestlé– Sakanako Txirrindula Eguna antolatu dute iganderako. 20. edizioa beteko du proba ez lehiakorrenak, eta “Sakana bizikletaz egutzen” leloa izango du.

Probaren helburua eskualdean txirrindularitza bulkatzea da eta goiz polita pasatzea lehiaketa asmorik gabeko ibilaldian. Horretaz gain, Sakanako bide, txoko, kale, zubi, ermita, basoak... ezagutarazi nahi dira, bizikletaz gozatzuz, eta bidean Sakanako herri ezberdinetako jendearen arteko harremanak bulkatu.

Txirrinduzaleen festa

Iaz 250 pertsona aritu ziren eta eguraldiak laguntzen badu, 400 txirrindulari biltzea gustatuko litzaieke.

Eguraldi aldakorra iragartzen dutenez, ikusteke dago nolako erantzuna izango den. Irurtzundik goizeko 9:00etan aterako dira, 11:00ak aldera geldialdia egingen da Lakuntzan, gosaltzeko, eta gero Altsasura helduko dira. Parte-hartzaile guztiek kaskoa eta ogitartekoa eraman beharko dute. Freskagarria antolatzaileek banatuko dute, eta bukaeran oroigarriren bat banatuko dute. Itxasperi, Egia-rreta, Etxarren, Ekai, Zuhatzu, Satrustegi, Hiriberri, Ihabar, Irañeta, Uharte Arakil, Arruazu, Lakuntza (gosaria), Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Iturmendi, Urdiain eta Altsasutik pasako da ibilbidea, bigarren mailako errepide eta xendetatik.

Autobusa eta bizikletak emateko kamioia goizeko 7:45ean aterako dira Ziorditik, eta herriz herri aurretik izena eman duten txirrindulariak jasoko ditu, proba bukaeran, atzera ere, autobusez

Ibilbidea jarraitzeko deia



Txirrindula Egunean parte hartu baino lehen txirrindula puntuan jartzea aholkatu dute antolatzaileek. “Egunean mekanikaria egoten da, Irisarri, baina egunean bertan gertatutako zulaketa edo matxurak konpontzeko, ez bizikletak puntuan jartzeko” nabarmendu dute. Bestalde, antolakuntzak zehaztutako ibilbidea jarraitzeko deia egin die txirrindulari guztiei, “segurtasuna bermatzeko eta arazoak ez egoteko”. Besterik gabe, txirrindula egunean aritzeko gonbita egin dute antolatzaileek.

euren etxeetara ino emateko –ize-na ematea 23an bukatuzen, Manken–. Aipatu zerbitzu hau erabili

behar ez dutenek ibilbidean sar daitezke nahi duten unean eta nahi duten unean utzi.



Bukatu da kulebroia?

ETEN EGIN DA ALONSOREN ETA EUSKALTELEN ARTEKO ITUNA, ETA BADIRUDI TALDEA DESEGIN EGINGO DELA

Euskaltel-Euskadi taldearen gora-beherak udako kulebroia bilakatzeko ari dira txirrindularitzan. Kulebroi tristea, ez bairik gabe. Talde larantjak abuztuaren 20an azaldu zuten 2014an ezingo zuela jarraitu, bigarren babesle bat lortzeko laneke baitzuten fruiturik eman.

Taldearen desagerpenarekin jota geundenean, irailaren 2an Fernando Alonsok eta Euskaltel-Euskadiren jabe Basque Cycling Pro Team taldeak konfirmatu zuten aurreakordio bat lortu zutela. Pil taldearen lizentzia erosizuela adierazi zuten. Nonbait, Samuel Sanchez txirrindularia zen proiektu berriaren oinarria eta talde larantjaren egiturari eustea zen asmoa. Hala ere, aldaketa sendoak proposatzen zirenetorkizunerako. “Gutxi naka haztea nahi dugu, txirrindulari onenak gehituz. Nazioarteko proiektu batera jauzi nahi dugu” adierazi zuen Alonsok. Kontratu indarrean zuten txirrindulariei eta langileei eutsiko omen zioten. Egoera horretan zeuden Egoi Martinez eta Gorka Verdugo. Gainontzekoekin hitz egitekotan omen zeuden.

Bi aldeek gaineratu zuten, “hurrengo egunetan itxiko da behin betiko akordioa”. Eta guztiek hori espero zutenean, ez da akordioa itxi.

Aurreakordioa hautsita

Astelehenean jakin zen Euskaltelek eta Alonsok zuten aurreakordioa hautsi egin zela. “Etsita gau-

Sakandarrak, atzera ere airean



Euskaltel-Euskadi taldean 68 langile daude, txirrindulariak, zuzendariak, masajistak, laguntzaileak eta beste kontuan hartuta. Tartean daude 6 sakandar, Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Pablo Urteasu eta Jorge Azanza txirrindulariak, Oscar Guerrero kirol zuzendaria eta Ibai Jimenez masajista altsasuarra. Berritoki ere etorkizunarekin kezkatuta daude, berrien zain, triste eta nondik jo argi jakin gabe. Etsipenetik esperantzara eta berritoki ere zulora. Zortetik onena opa diegu beraiei eta euren lankide guztiei.

de negoziazioak nola amaitu diren ikusita” adierazi du Euskaltelek bere web orrian. Aipatu dutenez, aurreakordio horretan “bide orri bat” zehaztu zuten. “Geure alde-tik guztia jarrita eta baldintzarik gabe ahaletin handia egin dugun arren, azkenean ezin izan dugu gauzatu akordioa” adierazi dute.

Nonbait, soilik kontratu dute 14 txirrindulariak nahi ditu Alonsoren taldeak bere egiturarako, eta gainontzeko 54 langileak –txirrindulariak, masajistak...–, autoak, autobusak, Orbea eta BioRacer enprekin dauzkaten akordioak... talde osoaren kontratuak errespe-

tatzea nahi omen zuen Euskaltelek. Eta, nahiz eta bi aldeek haus-turaren arrazoiak ez konfirmatu, badirudi hori izan dela desadostasun nagusia eta aurreakordioa apurtzeko arrazoiak.

“Gustatuko litzaiguke negoziazioen xehetasunak azaltzea, guk dena eman baitugu, zintzotasun osoz, baina ezin dugu halakorik egin, negoziazioen konfidentzialtasuna errespetatu egin behar baita” nabarmendu du Euskaltelek. Alonsok sare sozialen bidez adierazi

duenez “bukaerara arte saiatu gara baina ezinezkoa izan da 2014an txirrindularitza talde bat izatea. Ezin izan da baina izango da! Abentura hau ez da hasi baino egin! 2015erako, ilusioarekin!” esan du.

Itxiera

“Tamalez egungo proiektua modu ordenatu eta ardurasuan itxeko lanari ekingo diogu, pena handiz” nabarmendu dute Euskaltelen. Hau ez da soilik talde baten desagerpena, harrobiko txirrindularien etorkizuna baitago airean. 20 urte haue-tan txirrindulari euskaldunen harrobirako ezinbestekoa zen taldeapertsiana jaistera doa. Hala ez? Oraindik mugimenduak egon daitezke? Babesleren bat ager daiteke? Hala taldea behin betiko desager-tuko da? Ikusiko dugu.

Egoi Mundialean



Txirrindularitza Mundialak jokatzen ari dira Florentzian. Igandean 272,3 km-ko lasterketa dago jokoan eta bertan ariko da Egoi Martinez. Etxarriarrak 35 urterekin debutatuko du bertan. Valverde laguntzea da bere egitekoa.

Euskaltel 18.a taldekakoan Omega Pharma-Quick Stepek irabazi du Munduko Taldekako Erlojupekoa. Euskaltel, Verdugo eta Azanza tarterako, 18.a izan zen.

kultura >>

AITORTZA HELENA TABERNARI: Nafarroako Ganbera Abesbatzak Propheta in patria 2013 saria eman zion herenegun Helena Tabernari. Atzerrian sona eta sorterriko kulturarekin konpromisoa izateagatik.

Uztartuz. Dantza, kantua eta euskara uztartzen dituen ikuskizuna

Larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean

Ibarrako Alurr dantza eskolako ikasleak ariko dira bihar Iortia kultur guneko eszenatokian, haien zuzendariaren herrian. Izan ere, Altsasuko dantza eskolako irakaslea den Iñaki Agirre dute zuzendari dantzari gipuzkoarrek. Haren esanetara

ondu dute *Uztartuz, dantzan ikasi, kantuz bizi, euskaraz hezi* ikuskizuna, dantza, kantua eta euskara bateratzen dituen.

Euskal dantzen oinarri tradizioaletik abiatuta, izaera berritzaileko ikuskizuna emanen dute Alurrreko dantzariak. Tradizioan oinarrituta koreografia berritzaileak prestatu dituzte, horretarako betiko eta gaur egungo erritmo, doinu



eta kantuak erabiliz, bai bertakoa bai atzerrikoak. Guztia ongi zaindutako estetikarekin jantzia.

Kortxeen Lantegia, kantuan

Igandean, 19:30ean Etxarriko elizan

Kortxeen Lantegia kantatzeko maite duten iruindar lagun talde batek osatzen du. Andrea Etxabarrenen zuzendaritzapean, 27 gizon-

emakume aritzen dira. Urte guztian asteen behin biltzen dira entseatzera eta etzi Etxarriko elizara herri kantak, espiritual beltzak, habanera, boleroak eta Hego Amerikako doinuak ekarriko dituzte.

Egitaraua

Kanta	Musika	Amonizazioa/egokitzapena
Jeiki jeiki etxeak	Herri kanta	Aita Donostia
Pilota partida bat	Herri kanta	Aita Donostia
Itsasoa	Herri kanta	Aita Donostia
Nire herriko neskatxa maite	Benito Lertxundi	Begoña Arana Martija
Ilunabarra	Ignazio Mokoroa	JA Huarte Azparren
Ojos brujo	Gonzalo Roig Lobo	Electo Silva Gainza
La golondrina	Narciso Serradell Sevilla	
La tarde	Sindo Garai	Electo Silva Gainza
Alfonsina y el mar	Ariel Ramirez	Josep Gustems
Tres cantos andinos	Dante Andreo	
Camino del indio	Atahualpa Yupanqui	F. Cabedo
Joshua fit the battle of Jerico	Espiritual beltza	Josly
Swinh low, sweet chariot	Espiritual beltza	Josly
Nobody knows	Espiritual beltza	Rolf Mammel
Godnight, well it's time to go	Elvis Carter/James Hudson	

Vocalia Taldea Iruñean

Idoia Agirre etxarriarra kide den Vocalia Taldeak kontzertua eskainiko du bihar, 20:30ean, Iruñeko San Antonio elizan (Carlos III.a kalean). Ahots propioz zikloaren barruan ariko da abesbatza gasteiztarra. Basilio Astulez zuzendariaren esanetara 26 emakume ari dira abesbatza horretan.

Kontzertuaren lehen zatian Xabier Sarasola konpositore gipuzkoarraren emakume abesbatzandako piezak aletuko dituzte. Horiek joan den urtean Haizeak dakar ize-neko diskoan argitaratu zituzten. Bigarren zatian berriki Italiako Arezzo hiriko Guido D'Arezzo nazioarteko polifonia lehiaketara eramandako erreperitorioaren zati bat eskainiko dute. **+www.guaixe.net**

bazterretik

Aritz Viñas

Musika hiltzeko zorian

Gaur nire lehenengo kolaborazioa da astekari honetan, eta izenburu honekin hasiera emango diot nire kolaborazio sortari.

"Musika hiltzeko zorian"; zergatik sarrera hau, beldurra eman dezake baina nire ustetan geroz eta ahulago aurkitzen dira gaur egungo taldeak eta, beraz, musika. Ez dut esan nahi musikarik gabe bizi beharko garela etorkizunean -pentsaezina egiten zait horrela bizitzea- baizik eta musikaren eta talde bat izatearen esentzia galtzen ari dela. Gauzak ez dira lehen bezala egiten, gaurko musikariak eta taldeak bilatzen dutena saltzea eta fama lortzea da, berdin zaie zein musika mota jo behar duten hori lortzeko, eta musika lan bezala hartzen dute hasieratik.

Ondo pasatzeko, juerga egiteko eta barre egiteko sortutako taldeak geroz eta gutxiago dira, lehen esan bezala jendeak fama eta dirua bakarrik bilatzen duelako. Horretarako bere gustuko doinuak alde batera utzi eta jendeak entzun nahi duena jotzen dute, baina guztiok dakigunez, zure preferentziak alde batera utzita besteek eskatutakoa

egitean gauzak ez dira berdin ateratzen.

Zoritarrez, gaur egun sortuta dagoen musikaren merkatuan ez dira ondo pasatzeko taldeak saritzen eta inongo laguntzarik ez zaie ematen. Jendeak eskatzen duena nahi dute diskografika eta produktore gehienek, taldeko kideek sentitzen dutena alde batera utzita, dirua bilatzeko asmoz. Dena diruaren inguruan bueltaka dabil, eta sentimentuak alde batera utzi egin dira azkeneko aldi honetan.

Ez dakit ados egongo zareten, baina nik behintzat beharra dut atzera egiteko, eta lehen zeuden talde galantak eta ederrak berriro sortzeko ere. Taldeak zeinetan helburua ez zen dirua egitea, ligatzea edo fama bilatzea. Lagun talde onak non helburua ez zen milioi bat diska saltzea, baizik eta noizbehinka lagunekin batzea, barruan dutena kanporatzea eta zorte pixka batekin herriko gaztetxean jotzea urtean behin edo bitan, non ez dituzten milaka ezezagun espero, haien adiskide eta familiarik baizik.

Hau ez da guztiz desagertu, guztiok dakigu hori, baina laguntza behar du musikaren esentziak bizirik irauteko.

Olaztiko Udala
www.olazti.com
f Olazti kultura

Olaztiko San Miguelak

Ongi pasa festetan!

egitaraua

IRAILAK 27, OSTIRALA

19:30 TXUPINAZOA Kultur Etxetik. ERRALDOIAK eta BURUHANDIAK.

19:45 BONBA JAPONIARRAK Intsumisioaren plazan.

19:45-22:00 MUSIKA: DISKO FESTA San Miguel plazan.

20:00 Kakahuete, gazta eta ardo BANAKETA zilarrezko katiluetan, San Miguel plazan.

22:00 ZEZESENSUSKOA.

IRAILAK 28, LARUNBATA

9:00 DIANAK. Olazti eta Ziordiko koruekin.

10:00 VII. OLATZAGUTIA-URBASA MENDI LASTERKETA.

13:30 SARI BANAKETA. Antolatzailea: Sutegi Taldea. Laguntzailea: Olaztiko Udala.

14:30 BAZKARI HERRIKOIA udal pilotalekuan PASAI txarangarekin.

15:30-18:30 JOLAS PARKEA. Futbito pistan. (Euria eginez gero Erburua kiroldegian).

19:00 Antzerkia: "FULANITO eta MENGANITO" Trokolo Teatro. Sarasate plazan. (Euria eginez gero eskolako frontoian).

20:00 BONBA JAPONIARRAK Intsumisioaren plazan.

20:00-22:00 MUSIKA San Miguel plazan TRIKI-TEENS MUSIKA TALDEAREKIN.

20:00 Kakahuete, gazta eta ardo BANAKETA zilarrezko katiluetan, San Miguel plazan.

22:00 ZEZESENSUSKOA.

00:00-3:00 MUSIKA San Miguel plazan TRIKI-TEENS MUSIKA TALDEAREKIN.

IRAILAK 29, IGANDEA SAN MIGUEL

11:00-14:30 ARTISAU AZOKA. San Miguel plazan. (Euria eginez gero Erburua kiroldegian).

11:00-14:30 OLAZTIKO FOSIL eta MINERALEN ERAKUSKETA. Kultur Etxean.

11:00-13:00 TXUTXU TRENA. Itteera: Intsumisioaren plazatik.

11:30 KALEJIRA ERRALDOI eta BURUHANDIEKIN SAKANAKO TRIKITILARIEKIN.

13:00 "DOG SHOW" NAZIOARTEKO TXAKUR ERAKUSTALDIA. Sutegi parkean (Euria eginez gero eskolako frontoian).

16:00-19:00 TXUTXU TRENA. Itteera: Intsumisioaren plazatik.

18:00 ORTZADAR DANTZA TALDEA. Futbito pistan. (Euria eginez gero Erburua kiroldegian).

19:30-21:30 MUSIKA IBAI BERRIAK taldearekin, San Miguel plazan.

19:45 BONBA JAPONIARRAK Intsumisioaren plazan.

20:00 Kakahuete, gazta eta ardo BANAKETA zilarrezko katiluetan, San Miguel plazan.

21:30 ZEZESENSUSKOA.

Munstro birziklatuak

Lastailaren 12ra arte, astelehenetik ostiralera, 18:30etik 21:00etara Altsasuko Iortia Kultur gunean Munstroak Izenik Gabe erakusketa ikusgai

Hondakindegian bukatu behar zuten, botata, ezertarako balio ez zutela. Orain, ordea, herriz herriko bira batean daude eta jendeak kuriositatez begiratzen ditu. *Munstroak Izenik Gabe* erakusketako protagonistak dira, munstro koadrila.

Nafarroako hainbat ikastetxetako ikasleek parte hartu dute munstro horiek sortzen, tartean Altsasuko Aralarko Mikel Donea ikastetxeak. M^a Jose Rekalde eta



Juan Sukilbide artista plastikoen zuzendaritzapean munstroak biziberritu dituzte. Guztiak ere tamaina handikoak, “guk sortzen ditugun hondakinen tamainakoak”. Kanpaina horrekin ikasleei azaldu nahi izan zaie “birziklapenaren bidez hondakinei bizitza berri bat emateko” modua badagoela.

Birziklatzea biziberritzea denez, munstroen gorpuak hondakinez osatuta daude. Buruak egiteko, ordea, hondakinak birziklatzearen ondorioz sortzen den material berria erabili da, burua pentsamenduaren, adimenaren eta zentzutasunaren ikurra baita; azken finean, bizitza eta ingurumena maitatzearen ikurra. “Horrela, kontzientziak ere birziklatu behar direla erakusten da”.

Nafarroako Gobernuak bultzatu du ekimena, CRANA-Nafarroako Ingurumen arloko Balia-

Sakanako munstroa

Aluminiozko munstroa 2 izeneko munstroa sortu dute ikasle sakandarrek. Horretarako aluminioa erabili dute. Hain zuzen, apategi hondarrak, alanbreak, haien freskagarri-ontziak, haien ogitartekoak biltzeko paperak, laberako prest dauden janari-erretiluak eta beste. Aluminioa %100ean birziklatu daitekeen material bat da. Birziklapenari esker, duela mende bat baino gehiago ekoiztutako aluminioaren %75 baino gehiago erabiltzen da.

bide Zentroaren bitartez, eta hondakinak kudeatzeko Nafarroako mankomunitateekin elkarlan estuan, tartean Sakanako Mankomunitatea.

Gaur Ez taldeak atsedena hartuko du

Gor disketxeak jakinarazi duenez, Gaur Ez taldeak urte bateko atsedena hartuko du lastailetik aurrera. Taldearen aurkezpen lana hainbat eszenatokitan erakutsi ondoren heldu da taldearen erabakia. Beraz, Xabik (baxua), Idoiak (gitarra), Julek (kantari), Julenek (bateria) eta Alfredok (gitarra) osatzen duten taldea taula gainean ikusteko azken aukera bihar izanen da, Hernanin.

Sakanan grabatu du Altxatuk bere estreinako diskoa

runberriko hiru gaztetxok osatzen dute Altxatu taldea. Berriki Gor diskoetxearekin taldearen izen bereko lana argitaratu du. Grabazioa Vendetta taldeko Javier Etxeberriarekin du Errozko etxean duen estudio txikian.

Martina bidaiatzeko prest

Ilargo beteko egun batean, aurreko ostegunean, mustu zuen Urko Mauduitek *Martina* film-laburra. Nafarroako Filmotekan izan zen, Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutuaren Panorama zikloaren barruan. Irurtzundarrak bere lanari buruzko azalpenak eman zituen areto betearen aurrean. Nafarroako Gobernuak ordezkariek emaitzarekin pozik zeudela adierazi zuten.

Behin lana mustu eta gero, *Martina* eta bere lagun ilargia batean eta bestean erakusteko aukera dago eta Mauduitek jakinarazi duenez, deitzen duten tokietara joateko prest dago. Irurtzungo sortzaileak **Beleixe Irratiari (FM 107,3)** emandako elkarrizketan 3 dimentsioko animazioan bere 10 urteko ibilbidea errebasatu du. Mauduitek adierazi duenez, “guk pixka bat espezializatu nahi dugu. Aitorpe-



na bilatzen dugu, ez bakarrik gurea, jendearena ere. *Martinare-*

kin pauso handi bat eman dugu eta pozik gaude”. Aitortza bilatze horretan diru-laguntza baten filtroa pasatu izanak lanari bermea ematen diola azaldu du.

Aurrera

Mauduitek **Beleixe Irratian (FM 107,3)** adierazi duenez, “urrats bakoitzean profesionaltzeko urrats bat eman nahi izan dugu. Oraingoan banaketa enpresa baten bidez (Banatu filmak) *Martina* jaialdi-tara bidaltzen ari gara”. Orain arte sortutako film-laburrak ez ziren Nafarroatik atera. “Aurten Argentinara iritsi da, besteak baino urrutiago”.

Haurrendako film-laburra izatean irteera txikiagoa izan dezaakeela esan die banatzaileak, baina, hala ere, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioen ondoren ingelesezkoa egitera animatu dira. Eta bitartean hurrengorako finantziazioa bilajarratzen du irurtzundarrak.

Bazkide zozketa



IRAILEKO SARIAK:
1- LOTE BAT LACTOVOGURTAK + 2 SARRERA EKAINBERRIKO KOBAZULOETARA + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK
2- KATXIPORRETA TXANDAL BAT + AQUARIUMERAKO 2 SARRERA + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK
3- KATXIPORRETA TXANDAL BAT + AQUARIUMERAKO SARRERA BAT + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK
4- LIBURU LOTE BAT + AQUARIUMERAKO SARRERA BAT + XOTA NAVARRA IKUSTEKO SARRERAK

Non erabili Beleixeguaixe txartela

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

- PATXI GALARZA**
IRURTZUN
%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.
- JM AGIRRE HARATEGIA**
LAKUNTZA
50 €ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.
- DANTZALEKU TABERNA**
ALTSASU
Bazkarietan eta afarietan

- kafea edo kopa doan.
- KAXETA**
ETXARRI
% 5eko deskontua irakurketako liburuetan.
- KATE INFORMATIKA**
IRURTZUN
% 5eko deskontua 30 €tik gorako erosketan.
- BAIZA MOTOR**
ETXARRI
Eskaintza bereziak.

- KALUXA TABERNA**
URDIAIN
Menu edo plater konbinatuarekin kafea edo txupittoa doan, menu bereziarekin kafea edo kopa doan.
- CITROËN SAN MIGUEL**
ALTSASU
Total olioetan % 30eko deskontua. Pneumatikoen aldatzeketan % 20 deskontua.

G

asteko >> : eguraldia

ostirala

euria: 5%

Min: 19 Max: 29

larunbata

euria: 28%

Min: 16 Max: 22

igandea

euria: 25%

Min: 14 Max: 21

astelehena

euria: 28%

Min: 14 Max: 21

asteartea

euria: 28%

Min: 15 Max: 24

asteazkena

euria: 35%

Min: 16 Max: 24

osteguna

euria: 60%

Min: 15 Max: 22

>> : temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	30.1	6.9	3
Altsasu	30	9	1
Aralar	22.8	6.9	11.5
Urbasa	28	3	4.8

>> : ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
27	5	11	18

Acrylcolor
SISTEMA
BERRIA

KOLOREA
GEHIAGO ETA HOBE

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

Tel: 948 563 253
Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI
Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

2014ko egutegiaren eskaintza mundiala irailean

2013

mahai egutegiak

100	200 €
200	250 €
500	390 €

kolorez, 300 g papera, A4, piramide forman tolestua (210x100 mm)

2014

boltsiko egutegiak

100	57 €
200	63 €
500	97 €

kolorez, 300 g papera, 84 x 55 mm plastifikatzea: +30 €

bi orrikoak

100	70 €
200	85 €
500	130 €

kolorez, 300 g papera, 84 x 110 mm, erdina tolestua plastifikatzea: +30 €

horma egutegiak

100	156 €
300	328 €
600	586 €

Posterra personalizatua, kolorez, 330 x 370 mm, faldoiak elebiduna, bi kolorez

bazkideentzat %5eko deskontua

Guaixe KOMUNIKAZIOA
948 564 275
argi@guaixe.net

emendako prezioetan BEZ ez dago baimen

>> 11 galdera

Susana Aiestaran, Manolo Grado eta Manola Arregi
Amai taldea

Testua: Eneida Carreño eta Maider Betelu

1.Zer da Amai taldea?
Orain dela 2 urte 4 lagun elkartu ginen lan munduari buelta bat emateko. Bakoitzak arlo batean aritu nahi zuen eta guztia bilduta proiektu bat aurkeztu genuen Altsasuko Kaputxinoetan, bertan lokal aproposak dituztelako. Gustatu zitzaie, proiektuak baduelako oso izaera sozial handia. Soldatxo bat ateratu nahi dugu, bizi ahal izateko, baina beste guztia gizartearekiko eta gure inguruarekiko jorratzen dugu.

2.Zein arlo jorratzen dituzue?
Duela urte bat hasi ginen komentuan 3 arlo lantzen. Baratze ekologikoa da bat. Baratze produktuak saltzen ditugu. Bigarren arloa artea da, artistek euren artea lantzeko eta adierazteko aukera izan dezaten. Zenbait artista elkartzen dira. Lokal bat prestatu genuen arte tailerre- etor daitezten eta gauzak egin ditzaten. Eta hirugarren arloa osasuna da. Batetik, aspalditik egiten ditugu ukendu ezberdinak. Bestetik, guk osasuna ulertzen dugun modutik, kontzeptu holistikotatik, ikastaroak eskaini nahi ditugu arlo guztiak jorratzeko: fisikoa, emozionala, espirituala...

3.Hiru kide zarete baina taldea ireki daiteke, ez?
Bai. Gure funtzionamendu autogestionatua da, guztiz, ahal den neurrian. Erabaki guztiak taldean hartzen ditugu, asanblearioki. Bakoitzak lortu dezakeen etekin ekonomikoa, bere arloa dela eta, dena zaku berdinerara doa. Gero hori hiruron artean banatzen dugu, eta zati bat taldearendako

Elkarrizketa osorik: www.guaixe.net-en.

gordetzen dugu, inbertsioetarako.

4.Kaputxinoen egoitzan aurkeztu zenuten proiektua.
Tokia izugarria da eta dauzkan aukerak aprobetxatzekoak! Printzipioz dugun kontratua prekarioa da, nahi dutenean Madrildik esan dezaketelako: *bukatu da zuen denbora joan zaitezte!* Erabilpenagatik ez dugu dirurik ordaintzen baina egoera prekario hori hor dago. Gure enpresa sozialak etekin hobeak dituen eta alokairu bat ordaintzeko modurik baldin badugu beste kontratu mota bat egiteko aukera izango genuke. Hemengo fraileekin elkarbizitza oso ona izaten ari da eta laguntza guztia dugu.

5.Igandeetan ateak irekitzen dituzue jendeak baratzea ikusi eta produktuak erosteko.
Bai, 11:00etatik 14:00etara. Orain berenjenak, pepinoak, kalabazinak, lekak, perrexila, letxuga, tomateta, erremolatxa, zerba, borraja eta beste dago salgai, dena ekologikoa.

6.Zuen barazki-saskia jasotzeko zein da bidea?
Landatzeko kantitatea kalkulatzeko eta guztiaren programazioa egiteko beharrezkoa da jakitea zenbat pertsonak hartuko duten saskia. Horregatik eskatzen da urte bateko konpromisoa. Gero bi aukera daude: hilean 50 euro ordaintzea eta astero saskia jasotzea, edo hilean 25 euro ordaindu eta hamabostero saskia jasotzea. Saski bakoitzak 10 produktueramaten ditugu txigora-behera, aste batean 4 pertsonak jan ahal izateko adina. Dagoen jendea

pozik dago. Hemen ez da Gipuzkoan bezala gertatzen ari, hantxiek arrakasta handia dute. Hemen kontatzen ari zaio gehiago.

7.Geroz eta jende gehiagok jartzen du baratzea...
Bai. Bestetik, uste dugu jendeak ez diola sukaldatzeari garrantzirik ematen. Eta azken finean jaten duguna gara. Ez badugu hori zaintzen! Hemengo barazkiak, bere energia guztiarekin... jaten ari zarena da... bizitza!

8. Ikastaroetan zein da zuen eskaintza?
Urritik ekainera bitartean dantzaria eta adierazpen tailerrak (mugimendu tailerra eta kontu-kontari) eskainiko ditugu. Horretaz gain behin-behineko beste ikastaro batzuk antolatuko ditugu: Reiki II, barreterapia, arrautza-tenpera, aintzinean erabiltzen zen marrazketa teknika, eta abar. Gurean aukera dago ikastaroak emateko. Norbait etor daiteke eta bere ikastaroa hemen eman.

9. Zuekin harremanetan jartzeko?
Kaputxinoetatik pasa. Bestela, emailaz (amaitaldea@gmail.com) edo telefonoz (646 720 133, 848 479 119) erantzuten dugu.

10. Etxarriko zorri azokan eta beste batzutan zaudete.
Bai. Sakanakoak gara. Etxarrikoa istorio oso polita da.

11. Zortea alde izan dezazuela!
Eskerrik asko, zuek baita ere. Osasuna denondako!

Guaixe Komunikazioarekin aldaparik ez!

OLATZAGUTIA-URBASA
VII. MENDI LASTERKETA
2013ko irailak 28
www.olatzagutia-urbasa.net

OLATZAGUTIA-URBASA
VII. MENDI LASTERKETA
2013ko irailak 28
www.olatzagutia-urbasa.net

OLATZAGUTIA-URBASA
VII. MENDI LASTERKETA
2013ko irailak 28
www.olatzagutia-urbasa.net

SAKANAKO ASTEKARIA

EGOKI

Koiku

Guaixe KOMUNIKAZIOA
diseinua & inprimatzea